URRETXUKO UDALA

URRETXU (Gipuzkoa)

II

## UDALAREN OSOKO BILKURA

## 2006ko ABENDUAREN 29an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA

**Elkartutakoak**

**Alkatea**
Pello Gonzalez Argomaniz, jauna (E.A.)

**Zinegotziak**
Jon Zufiaurre Gabilondo, jauna (E.A.)
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea ( E.A.J)
Jabier Otermin Zelaia, jauna (E.A.)
Angel Errazu Garate, jauna ( E.A.J.)
Luis Angel Tellez Gogorza , jauna ( E.A. )
Juan Aztiria Aranguren, jauna ( E.A .)
Victor M. Perez Eguren, jauna (E.A.J.)
Gema Zabaleta Areta, andrea (P.S.E.-E.E:)
Antonio Molina Orden, jauna (P.S.E-E.E..)
Felix Toral Matesanz, jauna (P.S.E.-E.E)
Begoña Pereira Anduaga, andrea (P.P.)

**Idazkaria**
Mª Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontuhartzailea**
Sara Arrizabalaga Arbulu andrea

Urretxun bi mila eta seiko abenduaren hogeita bederatzian.

Arratsaldeko seirak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak eztabaidatzeari ekin diote.

En Urretxu a veintinueve de diciembre del año dos mil seis.

Siendo las dieciocho horas se reune en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican,.

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el Orden del Día.

Urrestarazu jaunak hitza hartu eta zenbat osoko bilkura ohikoak izan diren eta zenbat apartekoak galdetu du, eta era berean ohikoen maiztasuna. Idazkari andreak jakitera eman dio ohiko bilkurak zehaztuta dutela maiztasuna, eta une horretan ezin diola esan egin den bilkura kopurua, ez da izaera ere.

Ondoren, Urrestarazu jaunak protesta egin du, aurkeztutako mozioak ez daudelako gai-zerrendan sartuta. Alkate jaunak azaldu du lehenengo mozioari dagokionez Bozeramaileen Batzordean testu bat adostekotan geratu zirela, zirriborroa prestatu eta joan zen asteartean banatu zela, hain zuzen ere Herribideko ordezkaririk azaldu ez zen egunean; beraiei ere eskuratuko zaiela, eta Herribide ados baldin badago, testu hori argitaratuko dela.

Aurkeztutako bigarren mozioari dagokionez, aipatu du inongo identifikaziorik gabe iritsi zela, eta sarrera erregistroa aztertu ondoren jakin zela Urrestarazu jaunak aurkeztua izan zela. Dena den, aditzera eman du hori ere asteartean eztabaidatu zela, eta Herribidek adostasuna agertzen badu, modu horretan egingo du aurrera.

Urrestarazu jaunak aipatu du ezin izan zutela joan zen asteartean Kontratazio Mahaira agertu, eta arintasun haundiagoa eskatzen du aurkezten diren mozioak bideratzerakoan.

El Sr. Urrestarazu pide la palabra y pregunta cuantos plenos han sido ordinarios y cuantos extraordinarios, así como la periodicidad de los ordinarios. Se le informa por la Sra. Secretario que las sesiones ordinarias tienen una periodicidad establecida, y que en ese momento no le puede decir el numero de plenos celebrados ni su carácter.

Seguidamente el Sr,Urrestarazu protesta por no estar incluido en el orden del día las mociones presentadas. El Sr. Alcalde expone que respecto a la primera moción en Junta de Portavoces se quedó en consensuar un texto, habiéndose elaborado el borrador que se repartió el pasado martes, día que ningún representante de Herribide acudió , y que también les será facilitado y que si Herribide está conforme será el texto que salga a la luz.

Respecto a la segunda moción presentada, señala que la misma llegó sin identificación alguna, llegándose a saber tras analizar el registro de entrada que había sido presentada por el Sr. Urrestarazu. Señala que , no obstante, la misma también fue tratada el pasado martes, y si Herribide muestra su conformidad se llevará adelante en ese sentido.

El Sr.Urrestarazu indica que no pudieron acudir a la Mesa de Contratación convocada el pasado martes, y solicita mas agilidad en la tramitación de las mociones que se presenten.

**1.- Aurreko batzarraldiaren akta.-**
Urriaren 23an egindako bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

**2.- Alkatearen ebazpenak.**
Urriko dekretuen berri eman da, hain zuzen ere ondorengo hauek

05-10-03 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-03 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-03 " Construcciones Mugica" Obra baimena.

05-10-03" Construcciones Berri, S.A." Bide publikoa okupatzeko baimena.

05-10-04 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-04 M.A.M.A. TMIZ Salbuespena.

05-10-04 L.M.A.A. TMIZ Salbuespena.

05-10-04 F.E.U. TMIZ: Salbuespena

05-10-04 J.C.G.G. TMIZ: Salbuespena.

05-10-04 J.M.O.P. TMIZ Salbuespena

05-10-04 F.J.A.B. TMIZ Salbuespena

05-10-04 L.L.M. TMIZ salbuespena

05-10-04 M.L. F.A. TMIZ salbuespena

05-10-04 M.A.M. TMIZ salbuespena

05-10-04 M.I.L.T. TMIZ salbuespena

05-10-04 TMIZ diferentzia bueltatzea.

05-10-05 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-06 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-05 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera-

**1.-Acta de la sesión anterior.-**
Dada lectura al acta de la sesión celebrada el día 23 de octubre es aprobada por unanimidad.

**2.- Decretos de Alcaldía**
Se da cuenta de la relación de Decretos dictados durante el mes de, octubre que se relacionan a continuación

03-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

03-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

03-10-05 Construcciones Mugica: Licencia obra

03-10-05 Construcciones Berri, S.A.: Ocupación vía pública

04-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

04-10-05 M.A.M.A. : Exención IVTM

04-10-05 L.M.A.A.: Exención IVTM

04-10-05 F.E.U: Exención IVTM

04-10-05 J.C.G.G.: Exención IVTM

04-10-05 J.M.O.P:: Exención IVTM

04-10-05 F.J.A.B.: Exención IVTM

04-10-05 L.L.M: Reconocimiento Exención IVTM

04-10-05 M.L. F.A.: Reconocimiento exención IVTM.

04-10-05 M.A.M: Reconocimiento Exención IVTM.

04-10-05 M.I.L:T: Reconocimiento exención IVTM

04-10-05 Devolución diferencia IVTM

05-10-05 Solicitud inscripción padrón

05-10-06 Irekitze baimena Labeaga 19 behean,

05-10-07 San Martingo jabekideek baimena ukatzea.

05-10-07 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-05 Labeaga 33 E obra baimena eta neurri zuzentzaileak

05-10-06 Obra txikia egiteko baimena Barrenkale 15-5. C

05-10-07 Obra txikia egiteko baimena Nekolalde 3-4. B

05-10-06 R.L.D. alegazioak onartze.

05-10-06 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-06 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-06 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-06 Udaltzain aldi baterako lanpostuaren behin-behineko zerrenda onartzea.

05-10-08 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-08 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera-

05-10-01 Necso, S.A. Berma itzultzea.

05-10-09 Goierri Garaia Atletismo Materiala uztea.

05-10-10 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera-

05-10-11 Obra txikia egiteko baimena Nekolalde 5

05-10-09 P.N.C. dirua kentzea.

05-10-10 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera-

municipal habitantes.

05-10-16 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

05-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

06-10-05 Licencia apertura Labeaga 19 bajo.

06-10-05 Copropietarios San Martín: Denegación licencia.

06-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

06-10-05 Licencia obras y medidas correctoras Labeaga 33 E bajo.

06-10-05 Licencia obra menor Barrenkale 15- 5º C

06-10-05 Licencia obra menor Nekolalde 3-4º B

06-10-05 R.L. D.: Estimación alegaciones.

06-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

06-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

06-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

06-10-05 Aprobación lista provisional Policía Municipal temporal.

07-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

07-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

10-10-05 Necso, S.A.: Devolución aval.

10-10-05 Goierri Garaia Atletismo Cesión material.

10-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

10-10-05 Licencia obra menor Nekolalde 5

05-10-11 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera-

05-10-12 Gazteak: Lizeoko sooinketa gela erabiltzeko baimena-

05-10-12 Santa barbarako tabernako plegua onartzea.

05-10-13 “Carpinteria izaspi, S.L.” faktura onartzea.

05-10-14 Promociones Euskalduna, 2005, S.L. bide publikoa okupatzeko baimena-

05-10-14Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-15 Liburutegiko eta polikiroldegiko “ jarri sasoian korrika “ liburua erostea.

05-10-13 A.E.A.A: Eszedentzia ematea.

05-10-17Urriko kultur egitaraua onartzea.

05-10-18 Labeaga 16 bide publikoa okupatzeko baimena
0
05-10-19 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-20 RCA 401/04-2 ABRE prozeduran aurkeztea.

05-10-20 J.M.A. Zigor espedientea irekitzea

05-10-20 M.V. Zigor espedientea irekitzea.

05-10-20 R.G.S.A. Irekitze baimena Labeaga 43 behea,

05-10-20 L.E.A. Obra txikia egiteko baimena

05-10-21 J.M.P. Obra txikia egiteko baimena.

05-10-21Construcciones Altuna y uria. Lur-bereizteko baimena

05-10-21Udal biztanleen erroldan erroldatzekoeskaera

05-10-24 Eguneko zentruko 2.

10-10-05 P.N.C. Retención

10-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

11-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

11-10-05 Gazteak: Cesión gimnasio Lizeo.

11-10-05 Aprobación pliego cláusulas bar Santa Bárbara.

13-10-05 Aprobación factura Carpintería Izaspi,

13-10-05 Promociones Euskalduna, 2005, S.L.: Ocupación vía pública.

14-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

14-10-05 Adquisición libro “Jarri sasoian korrika” para Biblioteca y Polideportivo

14-10-05 A.E.A.A. Otorgar excedencia

17-10-05 Aprobar programa cultural octubre.

18-10-05 Ocupación vía pública Labeaga 16,

19-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

20-10-05 Personación procedimiento RCA 401/04-2 ABRE

20-10-05 J.M.A.: Inicio expediente sancionador.

20-10-05 M.V.: Inicio expediente sancionado

20-10-05 R.G.S.A.: Licencia apertura Labeaga 43 bajo.

20-10-05 L.E.A.: Licencia obra menor.

21-10-05 J.M.P:: Licencia obra menor.

21-10-05 Construcciones Altuna y Uria: Licencia segregación

21-10-05 Solicitud inscripción padrón

Hiruilabeteko garraoia ordaintzea.

05-10-24 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera

05-10-24 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-25 Eroski: obrak egiteko baimena .

05-10-27 Obra txikia egiteko baimena Iparragirre 1-1. Esk.

05-10-27 Obra txikia egiteko baimena Labeaga 33J-3. C

05-10-27Obra txikia egiteko baimena Labeaga12-2. G

05-10-27 Mineralen astean segurtasun serbitzua esleitzea.

05-10-27M.V. alegazioak onartzea-

05-10-28 I.E.A. aldi baterako funtzionaria izandatzea.

05-10-28Gainzuri ikastetxea. Ederrena pilotalekua erabiltzeko baimena.

05-10-28 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera.

05-10-28Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera

05-10-28Gainzuri ikastetxeko komunak egokitzeari buruzko likidazioa onartzea.

05-10-31 San Martin 6ko jabekideek obratxikia egiteko baimena.

05-10-31 J.V.C. Obra txikia egiteko baimena

05-10-31 Lortu serbitzuak: titularitatea aldatzea.

05-10-31 Udal biztanleen erroldan erroldatzeko eskaera

municipal habitantes.

24-10-05 Abono 2º trimestre transporte Centro de día.

24-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

24-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

26-10-05 Eroski: Licencia obras reparación filtraciones

27-10-05 Licencia obra menor Iparragirre 1-1º dcha.

27-10-05 Licencia obra menor Labeaga 33 J-3º A.

27-10-05 Licencia obra menor Labeaga 12-2º G.

27-10-05 Adjudicación servicio seguridad semana de minerales.

27-10-05 M.V.: Estimación alegaciones.

28-10-05 I.E.A.: Nombramiento funcionario interino.

28-10-05 Gainzuri Ikastetxea: Cesión frontón Ederrena.

28-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

28-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

28-10-05Aprobación liquidación obra baños Gainzuri.

31-10-05 Copropietarios San Martín 6. Licencia obra menor.

31-10-05 J.C.V. Licencia obra menor.

31-10-05 Lortu Serbitzuak: Cambio titularidad.

31-10-05 Solicitud inscripción padrón municipal habitantes.

**3.- %0,7ko dirulaguntza GKEei.**

Alkate jaunak aditzera eman du programa hau "%0,7" deitzen den arren, ekitaldi honetan benetan %0,9a erabiltzen ari dela garapen bidean dauden herrialdeen laguntzarako, eta legealdi honen amaierarako %1eraino iristea dela aurreikuspena, hain zuzen ere legealdi hasieran hartutako konpromisoa hori izan baitzen.

Ondoren, Alkate jaunak Gizarte Ekimen eta Osasun Batzordeko lehendakari Agirre andreari eman dio hitza; honek adierazi duenez, eskaerak aurkezteko epea amaituta, ondorengo erakunde hauek aurkeztu dituzte eskaerak:

- Gipuzkoako Caritas: Edateko ur-araztegiaren instalazioa Oaxaca estatuan (Mexiko).
- Rokpa Euskadi: Tibeten bertako medikuntzan gazteei formazioa eskaintzeko.
- Global Humanitaria: Arrisku egoeran dauden haurrentzako harrera egoitza. India.
- Tierra de Hombres Fundazioa: Umeak Euskadira ekarri eta sendatzeko.
- Sociedad Civil, Cultural y Solidaria por la Paz: Chiapaseko eremura egokitutako osasun sistema sortzea.
- Asociación benefica Bikarte: Ume errusiarren harrera.
- Denok Osasunaren Alde (DOA): Lehen mailako osasun arreta Nueva Santa Rosan (Guatemala).
- Taupadak: Emakumezko indigenei turismo-osatalaritza formazioa ematea (Bolivia).
- Manos Unidas: Liberiako biztanleeria errefuxiatuari laguntza.
- Asamblea de Cooperación por la Paz de Euskadi: Senegalen nekazal

**3.- 0,7% Subvención ONG**

El Sr. Alcalde manifiesta que a pesar de seguir denominando a este programa como " 0,7 %" , lo cierto es que en este ejercicio se está destinando un 0,9% para la cooperacion con los países en vías de desarrollo, estando previsto que para el 2007 se alcance el 1%, compromiso adquirido al inicio de la presente legislatura.

Seguidamente da la palabra a la Sra. Agirre, Presidenta de la Comisión de Acción Social y Sanidad quien manifiesta que transcurrido el plazo de presentación de solicitudes se han presentado solicitudes por las siguientes organizaciones:

- Cáritas de Gipuzkoa : Instalación de planta potabilizadora en el estado de Oaxaca(Mexico)
- Rokpa Euskadi: Formación de jóvenes en medicina tibetana en Tibet
- Global Humanitaria: Hogar de acogida para niños en situación de riesgo. India
- Fundación Tierra de Hombres: Traslado de niños a Euskadi para su curación.
- Sociedad Civil , Cultural y Solidaria por la Paz: Creación de sistema de salud adaptado a la zona (Chiapas)
- Asociación benéfica Bikarte: Acogida niños rusos
- Denok Osasunaren Alde (DOA): Atención primaria de la salud en Nueva Santa Rosa (Guatemala)
- Taupadak: Formación de mujeres indigenas en turismo –hosteleria (Bolivia)
- Manos Unidas: Ayuda a población refugiada de Liberia

produktuak ustiatzeko eta komerzializatzeko emakumezkoei formazioa ematea.
- Izan: Irrati emisora sortzea Bolivian.
- Fuden: Ekuatore Ginean osasun sitema publikoa hobetzea.
- Garapenerako Laguntza Batzordea: Haurrak hartzeko egoitza eta ur-aprobetxamendurako sistema sortzea Tanzanian.
- Garapen Laguntza 2005: Bolivian liburutegia eta kirol gunea sortzeko laguntza.
- Frente Polisarioa eta Hare Haizea elkartea: Saharako haurrentzako harrera.

Jarraian, Gizarte Ekimeneko Batzordeak aurkeztutako proposamenaren berri eman du, eta aditzera eman du programa arautzeko oinarrietan ezarritako irizpideak erabili direla, hala nola programa oso bati laguntzea, autosufizientzia eta emakumeen aldeko edo kolektibo kaltetuenen aldeko diskriminazio positiboa bilatzen duten proiektuak.

Proposamena botoetara eramanda, eta kontuhartzaileak horren alde egindako txostena kontuan izanik, aho batez erabaki da:

**Lehenengo.-** Ondorengo diru ekarpen hauek egitea garapen bidean dauden herrialdeentzako finantziaziorako, 2006ko ekitaldian aurreikusitako diru atalaren kargura:

1) **FUDEN, 14.390,91 euro,** Ekuatore Ginean garatu beharreko osasun proiektuaren gastuak estaltzeko, eta gainera aurreko ekitaldiko proiektuari jarraipena emateko.

- Asamblea de Cooperación por la Paz de Euskadi: Formación de mujeres para explotación y comercialización de productos agrícolas en Senegal.
- Izan: Creación de emisora de radio en Bolivia
- Fuden: Mejora del sistema público de salud en Guinea Ecuatorial
- Comisión de Ayuda para el Desarrollo: Creación de hogar para niños y de sistema para aprovechamiento de agua en Tanzania.
- Ayuda al Desarrollo 2005: Creación de biblioteca y pista deportiva en Bolivia.
- Frente Polisario y Asociaciòn Hare Haizea: Acogida niños saharauis

Seguidamente da cuenta de la propuesta que presenta la Comisión de Acción Social indicando que en la adopción de la misma se han seguido los criterios establecidos en las Bases, tales como la ayuda a un programa completo, que sean proyectos que busquen la autosuficiencia y la discriminación positiva hacia las mujeres o hacia los colectivos más desfavorecidos.

Sometida la propuesta a votación, y habida cuenta del informe favorable emitido por Intervención, por unanimidad se acuerda:

**Primero.-** Conceder con cargo a la cantidad destinada a la financiación a los paises en vias de desarrollo del ejercicio 2006 aportaciones a los siguientes proyectos:

1) **FUDEN, 14.390,91 Euros**: paliar gastos de proyecto sanitario para desarrollar en Guinea Ecuatorial ,

2) **GARAPENERAKO LAGUNTZA BATZORDEA, 13.723,42 euro,** Adin Txikikoak Hartzeko Egoitzaren proiekturako, eta euri ura aprobetxatzeko putzua eta sistema eraikitzeko, hango biztanleei ur hornidura eskaintzeko kantitatez eta kalitatez. Aipatu baita ere proiektu honek Urretxuko lekaimearen abala duela. TANZANIA.

3) **DENOK OSASUNAREN ALDE, 5.998,82 euro,** oinarrizko osasun arretarako gastuak estaltzeko, besteak beste, Zumarragako Ospitaleko bi espezialistaren bidez. GUATEMALA.

4) **ROKPA EUSKADI, 1.000,00 euro,** Tibeten familiarik gabeko adin txikikoei arte edota langintza tipikoetan prestakuntza emateko proiektu batean laguntzeko.

5) **TAUPADAK, 6.500,00 euro**, Turismo Ostalaritzako formazio proiektu batean laguntzeko, eta ondoren konplexu turistiko xume bat eraikitzeko, BOLIVIAN emakume indigenen jabekuntza sustatzeko.

6) **GARAPENERAKO LAGUNTZA BATZORDEA, 8.462,94 euro,** herri honetako lekaime baten bidez 2005eko proiektua bukatzeko, aurreko ekitaldian hartutako konpromisoari erantzuteko.

7) **BAKEAREN ALDEKO ELKARTE ZIBILA, KULTURALA ETA SOLIDARIOA, 5.998,82 euro,** osasun sistema sortzeko eta eragileak prestatzeko, hori guztia Chiapas inguruko premiei egokituz, hemengo herritar bat dagoelarik horren kargu, eta bera delarik dirulaguntzaren

continuando con el proyecto financiado el pasado ejercicio.

2) **COMISION DE AYUDA PARA EL DESARROLLO, 13.723,42 Euros**: proyecto de Hogar de Acogida a Menores y construcción de un pozo y sistema de aprovechamiento de agua de la lluvia para dotar a la población de cantidad y calidad en el suministro de agua en Tanzania.

3) **DENOK OSASUNAREN ALDE ( DOA ), 5.998,82 Euros**: paliar gastos de atención sanitaria primaria en Guatemala a través de, entre otros, dos especialistas del Hospital de Zumarraga.

4) **ROKPA EUSKADI, 1.000,00 Euros** para colaborar en el proyecto de atender y formar a menores sin familia en artes y/o oficios típicos del Tibet.

5) **TAUPADAK, 6.500,00 Euros** para colaborar en un proyecto de formación en Turismo Hostelería y posterior construcción de un modesto complejo turístico para fomentar el empoderamiento de las mujeres indígenas ( preferentemente ) en BOLIVIA.

6) **COMISION DE AYUDA PARA EL DESARROLLO, 8.462,94 Euros** al objeto de responder a compromiso adquirido el pasado ejercicio para finalizar el proyecto de 2005 a través de la religiosa de este municipio.

7) **SOCIEDAD CIVIL , CULTURAL Y SOLIDARIA POR LA PAZ, 5.998,82 EUROS** para crear un

eskatzaile.

Era berean, aipatu, diru atal honen kargura, egitaraua uztaila eta iraila bitartean egiten delako, bi dirulaguntza eman direla:

1) **FRENTE POLISARIO, 2.175,00 euro**, “Oporrak Bakean” egitarauaren barruan Saharatik datozen haurren bidaia ordaintzeko.

**HARE HAIZEA Elkartea, 2.374,00 euro,** Saharatik etorri eta herri honetako familiek hartzen dituzten haurrekin jarduerak egiteko.

**Bigarren.-** Erakunde eskatzaileei jakinarazi erabaki hau.

**<u>4.- Ur Hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa integrala: Esleipena</u>**

Ur hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa integrala esleitzeko bideratu den kontratazio espedientearen egoera prozedimentala ikusi da, beti ere 2006ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran onartutako oinarrien arabera, prozedura ireki bidez egina, bideraketa arrunta eta lehiaketa bitartez.

Eskaintzak egiteko epe barruan, proposamen bakar bat aurkeztu da:

Aguas del Norte S.A.

Kontratazio Mahaiak, baldintza zerrendan jasotako betebeharrak betetzen diren aztertu ondoren, kontratua Aguas del Norte S.A. enpresari esleitzea proposatu du.

sistema de salud y formar promotores adaptando todo ello a las necesidades de la zona de Chiapas y estando al frente una ciudadana de este municipio que responde como solicitante de la subvención.

Así mismo, señalar que a cargo de esta partida, y debido a que el programa se desarrolla entre julio y septiembre, se han realizado dos concesiones :

1) **FRENTE POLISARIO, 2.175,00 Euros** para abonar los viajes de los menores del Sahara que vienen en el Programa “ Vacaciones en Paz “.

**Asociación HARE HAIZEA, 2.374,00 Euros** para realizar actividades con los menores que llegan del Sahara y son acogidos en familias de este municipio

**Segundo.-** Notificar a las organizaciones solicitantes

**<u>4.- Gestión integral servicios abastecimiento de agua potable y saneamiento: Adjudicación</u>**

Visto el estado procedimental en que se encuentra el expediente de contratación tramitado para la adjudicación de la gestión integral servicios abastecimiento de agua potable y saneamiento cuyas bases fueron aprobadas en sesión plenaria celebrada el 23 de octubre de 2006, mediante procedimiento abierto, tramitación ordinaria y forma de concurso.

Resultando que durante el plazo de presentación de propuestas, se presentó la siguiente proposición:

Dagokion batzorde informatzaileak gai honi buruzko iritzirik eman ez duenez, Antolamendu eta Jarduera Araudiaren 82.3 artikuluaren arabera, aho batez berretsi da eguneko gai-zerrendan sartzea.

Eztabaidari hasiera emanda, Molina jaunak hitza eskatu eta galdetu du ea gure uraren kalitatea beste herri batzuetakoaren berdina den; alkate jaunak adierazi du edateko ur hornidura ia Gipuzkoa osoan Ur Kontsortzioak kudeatzen duela, berak saltzen duela, eta hortaz kalitatea berdina dela denentzako.

Zinegotzien txanda amaituta, eta gaia botoetara eramanda, aho batez honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Ontzat ematea lehiaketa ekitaldia.

**Bigarren.-** Ur hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa integrala egiteko lehiaketa **Aguas del Norte S.A. enpresari** esleitzea, **urteko kanona 0,151 €/fakturatutako m3-ko** delarik, eta lehiaketa hau arautzen duten pleguetan eta enpresa horrek aurkeztutako eskaintzan ezarritako baldintzetan.

**Hirugarren.-** Esleipendunari errekerimendua egin ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo 15 egun naturalen barruan behin-betiko bermea era dezan**.**

**Laugarren.-** Alkate jaunari baimena ematea horretarako behar diren agiri guztiak sina ditzan.

Aguas del Norte,

Resultando que por la Mesa de Contratación , tras el examen del cumplimiento de las exigencias recogidas en los Pliegos de Condiciones, se propone la adjudicación del contrato a Aguas del Norte S.A,

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día.

Iniciado el debate, el Sr.Molina pide la palabra y pregunta si la calidad de nuestra agua es la misma que la de otros municipios, a lo que el Sr.Alcalde indica que el abastecimiento de agua potable es un asunto que gestiona en la casi totalidad de Gipuzkoa el Consorcio de Aguas , que es quien la vende, por lo que la calidad de la misma es igual para todos.

Finalizado el turno de intervenciones, y sometido a votación, por unanimidad se acuerda

**Primero**.- Declarar válido el acto de licitación.

**Segundo**.- Adjudicar la gestión integral de los servicios de abastecimiento de agua y saneamiento a la **empresa Aguas del Norte, S.A**. con un canon anual de **0,151 €/m3 facturado,** y en las condiciones establecidas en los Pliegos que rigen el presente concurso y en la oferta presentada por esta empresa.

URRETXUKO UDALA
URRETXU (Gipuzkoa)

**5.- Udal Ondasunen Inbentarioa: Onarpena**

Udalbatzaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra irakurri da, 2005eko abenduaren 31ko erreferentziarekin prestatua, eta ondorengo laburpena duena:

**Tercero.-** Requerir al adjudicatario para la constitución de la garantía definitiva en el plazo de 15 días naturales siguientes a la notificación del presente acuerdo.

**Cuarto.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

**5.- Inventario general de Bienes: Aprobación**

Se da lectura al Inventario General de Bienes y Derechos pertenecientes a la Corporación que se ha confeccionado con referencia al 31 de diciembre de 2005 y que ofrece el siguiente resumen general:

| *EPIGRAFEAK*<br>*EPIGRAFES* | *Ondasun edo eskubide kopurua*<br>*Nº de bienes o derechos* | *Balorazioa*<br>*Valoración* |
|---|---|---|
| ***1º Ondasun higiezinak-Bienes inmuebles*** | ***64*** | ***9.239.117*** |
| ▪ *Hiri lurreko ondasu higiezina. Inmuebles urbanos* | *31* | *9.090.331* |
| ▪ *Parke eta lorategiak Parques y jardines* | *1* | |
| ▪ *Plaza eta kaminoak Plazas y vías públicas* | *12* | |
| ▪ *Landa higiezinak Inmuebles rústicos* | *17* | *148.786* |
| ▪ *Landako bide publikoak Vías públicas rústicas* | *3* | |
| ***3º Izaera historikoa edo balio ekonomiko haundia duten gauzak Muebles carácter hístoric, artístico o económico*** | ***18*** | ***240.405*** |
| ***4º Balore mugikorrak, kredituak edo izaera pertsonaleko eskubideak Valores mobiliarios, créditos y derechos personales*** | **....................**<br>***3*** | **....................**<br>***218.515*** |
| ▪ *Balore hirigarriak l Valores mobiliarios* | *3* | *218.515* |
| ***5º Ibilgailuak Vehículos.*** | ***3*** | ***93.803*** |
| ***7º Aurreko ataletan sartu gabeko gauzak Otros bienes muebles .*** | ***483*** | ***4.740.777*** |
| ***8º Ondasun eta eskubide berreskuragarriak Bienes y derechos revertibles.*** | ***4*** | ***1.226.634*** |
| ***GUZTIRA TOTAL*** | ***575*** | ***15.759.251*** |

Dagokion batzorde informatzaileak gai honi buruzko iritzirik eman ez duenez, Antolamendu eta Jarduera Araudiaren 82.3 artikuluaren arabera, aho batez berretsi da eguneko gai-zerrendan sartzea, eta botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

TRRL delakoaren 86. Artikuluan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 17an eta hurrengoetan ezarritakoa kontuan izanik

Eztabaida labur bat egin ondoren, bilduta dauden udal-bazkideek honako hau erabaki dute aho batez:
Korporazioaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra onartzea prestatua dagoen moduan.

No habiendo sido este asunto dictaminado por la Comisión Informativa correspondiente, en virtud del art. 82.3 del ROF, se ratifica por unanimidad su inclusión en el Orden del día., y sometido a votación, por unanimidad se acuerda:

Considerando lo dispuesto en el art. 86 TRRL y 17 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Tras un breve debate, por unanimidad de los Corporativos participantes en la sesión se acuerda:
Aprobar el Inventario General de Bienes y Derechos de la Corporación en los términos en que ha sido confeccionado.

**6.- Urretxuko Udalaren eta Jesusen Bihotzeko Probintziako Pasiotarren Kongregazioaren – Pasiotarren Kuria Probintziala – arteko hirigintza hitzarmena: aldaketa.**

Alkate jaunak azaldu du hitzarmen hau Ikastolako eremuaren azterketaren ondorioz sortua dela, Aita Pasiotarrek proposatuta, jarduketa eremua euren jabetzapeko lur sailetara zabaltzeko hain zuzen ere, eta gogora ekarri du hitzarmen hau Udalbatza honek berak onartu zuela aho batez joan zen 2005. urtean; funtsean, hitzarmenaren edukia bide berria egiteko behar diren sailak uztea da, eta era berean eraikitzetik libre daudenak, espazio libreen sistemak eraikitzeko, 40 etxebizitzaren aprobetxamendua Aita Pasiotarrentzako, oraingo eraikinak botatzea, eliza salbu, eta elkartearen zerbitzuetarako eraikin txiki bat egiteko aukera.

**6.- Convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Urretxu y la congregación de la Pasión de Jesucristo Provincia del Sagrado Corazón de Jesús-Curia Provincial de Pasionistas: Modificación.**

El Sr. Alcalde expone que el convenio surge desde el estudio de la zona de la ikastola y a propuesta de los Padres Pasionistas de ampliar la zona de actuación a terrenos de su propiedad, y recuerda que este convenio fue aprobado por este mismo pleno y por unanimidad el pasado año 2005, siendo su contenido básicamente la cesión de los terrenos necesarios para el nuevo viario y aquellos libres de edificación para constituir sistemas espacios libres, un aprovechamiento de 40 viviendas para los P.Pasionistas, el derribo de las actuales edificaciones a excepción del templo, y .la posibilidad de ejecutar una pequeña edificación

Esan du gainera, hainbat azterketa egin ondoren, eta adostasunez, ondorioa izan zela proposamen harekin ez zela errespetatzen ari jatorrian elizak zuen konfigurazioa, eta horregatik Aita Pasiotarrek elizaren gurutze latindarra mantentzea eskatu zuten eta zerbitzuetarako eraikina elizan bertan txertatzea, isolatutako eraikin bat egin beharrean, hori guztia kontuan izanik eraikin hau berez ez dela aprobetxamendua, baizik eta sistema erlijiosoa dela. Era berean, hasiera batean aurreikusitako lurren lagapena haunditzea planteatzen dute, elizaren eskuin aldean dagoen muinoa ere sartuz. Azken batean, horixe da hitzarmenaren aldaketa honek dakarrena, eta osoko bilkurara onartzeko ekarri dena.

Jarraian, hitzarmenaren berri eman da, testua hitzez hitz ondoren idazten delarik.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Zabaleta andreak hitza eskatu du alkate jaunaren eskumenekoa den gai-zerrendari buruz bere iritzia emateko; esan duenez, gorde egingo dute beren iritzi politikoa AASSen berrikuspenari dagokion puntuan azaltzeko, nahiz eta aipatu proposatutako hitzarmen-aldaketaren aurkako botoa emango dutela; beraien ustez, gainera, AASSak eztabaidatu behar ziren aurretik.

Agirre andreak adierazi du bere alderdiak, EAJk, lan egin duela AASSen berrikuspena aurrera ateratzeko, eta bere ustez alderdi positiboak eta beste batzuk negatiboak dituztela, adibidez hitzaremen hau; honekin eta AASSen

para albergar los servicios de la comunidad.

Sigue diciendo que tras diferentes estudios, de común acuerdo se llegó a la conclusión de que con la propuesta no se estaba respetando la configuración que originariamente tenía el templo, por lo que los P.Pasionistas solicitaron el mantenimiento de la cruz latina del templo y albergar la edificación de servicios incorporándola en el templo en lugar de ejecutar una edificación aislada , todo éllo teniendo en cuenta que esta edificación no constituye un aprovechamiento en sí sino que constituye un sistema religioso. A su vez plantean ampliar la cesión de terrenos inicialmente prevista , incluyendo el promontorio existente a la derecha de la iglesia.. En definitiva esto es lo que supone la modificación de convenio que se propone a este pleno para su aprobación.

Seguidamente se da cuenta del convenio cuyo texto se transcribe literalmente a continuación

Iniciado el turno de intervenciones la Sra. Zabaleta pide la palabra para mostrar su opinión sobre el orden del día que efectivamente compete al Sr.Alcalde. diciendo que se reservan su opinión política para exponerla en el punto correspondiente a la revisión de NN.SS aun cuando indica que van a votar en contra de esta modificación de convenio propuesta, entendiendo además que primero se debería de haber tratado las NN.SS

La Sra. Agirre indica que su partido, el PNV ha trabajado para que la revisión de NN.SS salga adelante,

berrikuspenarekin ez baitaude ados. Esan du gainera, bere iritziz, gai hau AASSen ondoren eztabaidatu beharko litzatekeela.

Alkate jaunak gogora ekarri du Udalbatza honek berak aho batez onartutako hitzarmen baten aldaketa dela, eta hortaz Aita Pasiotarrek sinatzea eskatu izan balute, sinatu eta praktikan jarri behar izango zela. Esan du gainera aldaketa honen helburu bakarra kultur ondarea gordetzea dela, izan ere jatorrizko eliza eustea eta berreskuratzea nahi baita. Horregatik, Zabaleta eta Agirre andreei erantzunez, aditzera eman du AASSen aurreko puntua dela, lehen onartuta zegoen gai bat delako. Aipatu du gainera udal-bazkide guztiek aspaldidanik daukatela AASSen fitxa urbanistiko guztien berri.

Zabaleta andreak hitza eskatu eta aditzera eman du bere egunean erretserba batzuekin onartu zutela hitzarmen hau, eta gertatu dena gertatuta argi dago euren erretserba horiek funtsezkoak zirela. Alkate jaunak galdetu dio ea hitzarmen honen alde edo kontra dagoen. Zabaleta andreak erantzun dio PSE-EE hitzarmen honen aurka dagoela, egindako gestioaren inguruan zalantzak dituztelako; alkate jaunak esan du ez duela jarrera hori ulertzen, izan ere PSE-EE alderdiak lehen baiezko botoa eman zion hitzarmen bera baita, aipatutako salbuespen bakarrarekin, hau da, elizaren jatorrizko forma gordetzea. Zabaleta andreak aditzera eman du ez daudela ados manipulazioa egon dela uste dutelako; horren aurrean, alkate jaunak errespetua eskatu dio.

entendiendo que las mismas tienen aspectos positivos y otros negativos como lo es este convenio con el que no están de acuerdo porque tampoco están de acuerdo con la revisión de NN.SS. Añade que además también, a su juicio, este punto debería de haberse tratado tras las NN.SS

El Sr.Alcalde recuerda que esta es una modificación de un convenio que está aprobado por unanimidad por este Pleno, por lo que si los P.Pasionistas hubieran demandado su firma se hubiera tenido que suscribir y poner en práctica. Sigue diciendo que esta es una modificación que tiene como único objeto preservar el patrimonio cultural, en cuanto que pretende conservar y recuperar la iglesia original. Por ello , respondiendo a la Sras. Zabaleta, y Agirre indica que es un previo al punto de NN.SS por constituir un asunto que estaba anteriormente aprobado. Añade además que todos los corporativos tiene conocimiento desde hace tiempo de todas y cada una de las fichas urbanísticas de las NN.SS

La Sra. Zabaleta pide la palabra para manifestar que en su día apoyaron con reservas este convenio, y tras lo que ha sucedido es claro que sus reservas estaban más que fundadas. El Sr.Alcalde le pregunta si está a favor o en contra de este convenio. La Sra. Zabaleta responde diciendo que el PSE-EE está en contra de este convenio porque dudan de la gestión realizada, a lo que el Sr.Alcalde indica que sigue sin entender esta postura dado que es el mismo convenio al que el PSE-EE dió su voto a favor , con la única salvedad ya comentada, la

Perez jaunak hitza eskatu eta galdetu du hitzarmenaren beste alderdiak gora begira jokatu al duen, hau da etekina atera nahi al duen. Alkate jaunak erantzun dio bere ustez ez duela ezertan jokatu, ez alde, ez kontra, bakar-bakarrik kultur ondarea gordetzea, aprobetxamendua aldatu gabe. Perez jaunak aipatu du ez duela ulertzen ustez aztertuta zegoen gai bat gero aldaketarako aurkeztea. Alkate jaunak erantzun dio beharbada ez dagoela behar bezala informatuta, eta hori izan litekeela arrazoia, izan ere egin diren negoziaketak alkateak berak, alkate moduan, eta Perez zinegotzi jaunaren alderdia den EAJ alderdiko bozeramaile Agirre andreak egin baitituzte. Esan du gainera onartzeko aurkeztu den hitzarmenak behin-betiko izan nahi duela, baina horrek ez du eragozten bihar edo etzi herriarentzako hitzarmen hoberik izanez gero ezin daitekeenik aurkeztu, aztertu, eta Udalbatza ados baldin badago, onartu eta praktikara eraman.

Eztabaidari amaiera emanda, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeak emandako iritziaren arabera, gaia botoetara eraman da; baiezko botoa eman dute alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegoztiek (7 boto), eta aurkako botoa Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto); hori horrela, hauxe erabaki da:

**Lehenengo.-** Urretxuko Udalaren eta Jesusen Bihotzeko Probintziako Pasiotarren Kongregazioaren – Pasiotarren Kuria Probintziala – arteko hirigintza hitzarmenaren aldaketa onartzea.

preservación de la forma original del templo. La Sra. Zabaleta indica que no están de acuerdo por entender que ha existido manipulación, a lo que el Sr.Alcalde le pide respeto .

El Sr. Pérez pide la palabra apra preguntar si la otra parte del convenio ha jugado al alza, esto es a beneficiarse. El Sr.Alcalde responde diciendo que a su juicio no ha jugado a nada, ni a favor no en contra, sino simplemente a preservar el patrimonio cultural, sin modificarse sus aprovechamiento. A este el Sr.Pérez indica que no entiende que un asunto que se entendía estudiado se presente posteriormente para su modificación. El Sr.Alcalde le indica que esto quiza se deba a que no está suficientemente informado, ya que las negociaciones realizadas lo han sido por su persona, como Alcalde, y por la portavoz del PNV, partido del que es concejal el Sr.Pérez, Sra.Agirre. Añade que el convenio que se ha presentado para su aprobación tiene voluntad de ser definitivo, lo que no impide que si mañana se entiende la posibilidad de un convenio mejor para el municipio, se pueda presentar, estudiar y si el Pleno está de acuerdo aprobar y llevar a su práctica.

Finalizado el debate y considerando el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, y sometido el asunto a votación con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los concejales Sres. Zufiaurre, Otermin, Tellez. Aztiria, Molina y Pereira ( 7 votos) y los votos en contra de los concejales Sres. Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta y Toral ( 5 votos) se acuerda:

**Bigarren.-** Alkate jaunari ahalmena ematea horretarako behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**7.- Fco Mujika etxegilearekin hitzarmena, Nekolalde 9ko solairuartean bizitokiak jartzeko.**

Alkate jaunak azaldu duenez maizterrak dituen eraikin baten aurri-deklarazioaren ondoren egindako gestio baten ondorioz sortu da hitzarmen hau, hain zuzen ere bizilagun horiek etxe gabe gera ez daitezen. Horiei bizitokia emateko Nekolalde 9an dagoen solairuartea egokitzen da, eta haiek biziarteko errentamendu kontratua egingo litzateke maizter horiekin. Kontratuak iraungitu eta gero, Nekolalde 9ko solairuartean egokitutako etxebizitzak dagokion Ordenantzan ezarritako erabilerara aldatuko lirateke.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Agirre andreak eskatu du hitza, eta aditzera eman du bere ustez gai honek ere AASSen berrikuspenarekin daukala zerikusia; esan du gainera, solairuarteko lokalen ordenantzari buruzko dokumentaziorik jaso ez dutenez, ezin dutela hitzarmena onartu.

Alkate jaunak aditzera eman du AASSak hurrengo puntuan eztabaidatuko direla, baina une honetan aurri-deklarazioa izan duen Labeaga 44ko maizterrak Nekolalde 9ko solairuartean sartzeko borondateaz ari garela.

Zabaleta andreak hitza eskatu eta aditzera eman du borondateaz hitz egiten dela, baina benetan ez dagoela solairuarteak arautzeko ordenantzarik, eta galdetu egin du ea zergatik ez den hori prestatu, beste

**Primero .-** Aprobar la modificación del convenio urbanístico entre el Ayuntamiento de Urretxu y la Congregación de la Pasión de Jesucristo Provincia del Sagrado Corazón de Jesús-Curia Provincial de Pasionistas.

**Segundo.-** Facultar al Sr.Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

**7.- Convenio Construcciones Fco. Mugica realojo entreplantas Nekolalde 9**

El Sr. Alcalde expone que este convenio surge de una gestión realizada, tras la declaración de ruina de un edificio que tiene inquilinos, y así evitar que estos queden sin techo. Para su realojo se habilita la entreplanta sita en Nekolalde 9, y se procedería a la suscripción con estos inquilinos del oportuno contrato de arrendamiento con carácter vitalicio. Una vez extinguidos estos contratos las viviendas habilitadas en la entreplanta de Nekolalde 9 pasarían al regimen de cambio de uso establecido en la Ordenanza correspondiente.

Iniciado el turno de intervenciones, la Sra.Agirre pide la palabra para manifestar que, a su juicio, este es un asunto relacionado también con la revisión de NN.SS, añadiendo que dado que no han recibido documentación relativa a la ordenanza de entreplantas no pueden aprobar el convenio.

El sr.Alcalde indica que de las NN.SS se va a tratar en el punto siguiente, tratándose en este momento de una voluntad de que sean los inquilinos de Labeaga 44, edifico declarado en

udalerri batzuetan bezala.

Alkate jaunak esan du galdera hori Zabaleta andreak berak egiten duela, bi aldiz botoa ukatu duenean. Zabaleta andreak galdetu dio ea berari ari zaion errua botatzen, eta alkate jaunak baietz erantzun dio, izan ere gobernu taldeko kidearekin, EAJrekin, arazoak sortu zirenetik, Eusko Alkartasunak beharrezko laguntza bilatu du, eta Zabaleta andrearen kasuan bi aldiz adierazi du bere laguntza, eta gero erretiratu egin du. Elkarrizketa pertsonalak aireratu ez ditzan eskatu dio Zabaleta andreak, eta galdetu dio zenbat urte daraman karguan, orain errua PSE-EE alderdiari botatzeko.

Alkate jaunak gogora ekarri du solairuarteko lokalen erabilera aldatzeko ordenantza proposamena beste herri batzuetako bilakaera ikusi ondoren sortu zela, eta urte betean geldi egon dela, AASSen berrikuspena denbora berean geldi egon den bezalaxe.

Perez jaunak hitza eskatu eta galdetu du solairuarteko lokaleei buruzko hitzarmen bat onartu al litekeen, legezko babesa emango dion ordenantzarik ez dagoen bitartean. Solairuarteko lokalak arautzeko ordenantza AASSen berrikuspenaren barruan sartuta egotearen arrazoia azaldu da, hau da, erabilera aldaketa bat izanik hirigintza-ordenantza besterik ez dela, eta beraz, planeamendurako eskatzen den tratamendu eta tramitazio berbera dela. Alkate jaunak Perez jaunari erantzun dio hitzarmen hau konpromiso hitzarmen bat dela, eta ondorio horixe ateratzen dela testutik,

ruina, los que ocupen la entreplanta de Nekolalde 9.

La Sra.Zabaleta pide la palabra y manifiesta que se habla de voluntad, pero en realidad no existe la ordenanza reguladora de entreplantas, preguntando por qué no se ha elaborado la misma como en otros municipios.

El Sr.Alcalde dice si la que pregunta eso es élla la Sra. Zabaleta, cuando en dos ocasiones ha negado el voto. La Sra. Zabaleta le pregunta si le está culpando a élla, a lo que el Sr.Alcalde responde afirmativamente, dado que desde que surgieron problemas con el socio del equipo de gobierno, PNV, Eusko Alkartasuna ha buscado el apoyo necesario, y en el caso de la Sra.Zabaleta, ha manifestado su apoyo en dos ocasiones retirándolo después. La Sra.Zabaleta le solicita que no airee conversaciones personales, y le pregunta cuántos años lleva ejerciendo su cargo para que ahora culpe al PSE-EE.

El Sr. Alcalde recuerda que la propuesta de ordenanza reguladora del cambio de uso de las entreplantas surgió tras ver el devenir en otros municipios, y que la misma ha estado paralizada durante un año, el mismo tiempo que ha estado paralizada la revisión de NN.SS.

El Sr. Pérez pide la palabra para preguntar si se puede aprobar un convenio sobre entreplantas cuando no existe ordenanza que preste la necesaria cobertura legal. Se explica la razón de que la ordenanza reguladora de entreplantas esté incluida dentro de la revisión de

eta ondorengo lerroaldia irakurri du: *“ Urretxuko Udalak lokalaren erabileraren aldaketa* ***baimenduko du*** *…”*

Zabaleta andreak aditzera eman du ohartarazi egin nahi duela erabaki honek izan dezakeen legezkontrakotasuna, eguneko gai-zerrendan daraman hurrenkeragatik; alkate jaunak erantzun dio ez dela bere eginkizuna, ezta eskumena ere, legezkotasun edo legezkontrakotasunak ohartaraztea.

Zinegotzien adierazpenen txanda amaiturik, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako iritzia kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, baiezko botoa eman dute alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegotziek (7 boto), eta aurkako botoa Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto); ondorioz, hauxe erabaki da:

**Lehenengo.-** Nekolalde 9ko solairuarteko lokaletan bizitokiak jartzeko, Urretxuko Udalaren eta Construcciones Fco Mugica enpresaren arteko hitzarmena onartzea, testua hitzez hitz jarraian idazten delarik:

**AURREKARIAK**

*I.- Construcciones Fco. Mugica, S.L. enpresak jabari osoko titularitatea du Nekolalde kaleko 9. zenbakia duen eraikineko solairuartean dagoen finkan; erreferentzia katastrala 0718009, zenbaki finkoa 5033139N, gutxi gorabeherako azalera 200 m2. Aipatutako eraikina planeamenduko AASSetako A-10 arean kokatuta dago; area horrek etxebizitzatarako erabilera du, eta*

NN.SS, que no es otra que al tratarse de un cambio de uso es una ordenanza urbanística por lo que requiere el mismo tratamiento y tramitación que el planeamiento El Sr.Alcalde responde al Sr.Pérez diciendo que este convenio es un convenio de compromisos, como así resulta de su texto y procede a la lectura del siguiente párrafo *“ El Ayuntamiento de Urretxu* ***autorizará*** *el cambio de uso del local….”* .

La Sra. Zabaleta manifiesta que quiere advertir de la posible ilegalidad que este acuerdo puede conllevar por el orden en que se encuentra colocado en el Orden del Día de la presente sesión, a lo que el Sr.Alcalde le dice que no es su labor ni competencia advertir de legalidades o de ilegalidades.

Finalizado el turno de intervenciones, considerando el dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, y sometido el asunto a votación con los votos a favor del Sr. Alcalde y de los concejales Sres. Zufiaurre, Otermin, Tellez. Aztiria, Molina y Pereira ( 7 votos) y los votos en contra de los concejales Sres. Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta y Toral (5 votos) se acuerda:

**Primero .-** Aprobar el convenio de realojo en las entreplantas de Nekolalde 9, entre el Ayuntamiento de Urretxu y la empresa Construcciones Fco. Mugica. Cuyo texto se transcribe a continuación:

**ANTECEDENTES**

*I.- Construcciones Fco.Mugica S-*

*solairuartekoek eta lokalek merkatal erabilera dute.*

*II.- 2004ko maiatzaren 25eko Alkatetzaren Ebazpenez, aurri-egoeran deklaratu zen Labeaga 44an kokatuta dagoen eraikin osoa. Aipatutako eraikin horretan ondorengo hauek bizi dira errentari moduan: Aniceto Hidalgo Perez jauna, Federico Gil del Sol Gomez jauna eta Gloria Guayo Martin andrea, eta Antonia Martinez de Ilarduya Uriarte andrea. Esandako aurri-egoera deklaratuta, eta alderdiek hala adostuta, Urretxuko Udalak, Alkate jauna tarteko, bitartekari lana egin zuen aipatutako errentari horiek beste etxe batera eramateko, alderdi guztiek nahi zutelarik etxebizitza aldaketa.*

*Construcciones Fco. Mugica enpresak, Urretxuko Alkate jaunak eta errentariek izan dituzten elkarrizketen ondorioz, agiri honetako I. aurrekarian deskribatu den finkan errentariak sartzea proposatu du enpresa horrek.*

*III.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeak oniritzia eman dio proposamenari, eta hortaz, alderdi biek, elkarri behar besteko gaitasun eta ahalmen aitortu ondoren, bidezko jo dute sinatzea honako*

***HITZARMENA***

***LEHENENGO.-** Urretxuko Udalak baimena emango du I. aurrekarian deskribatutako Nekolalde kaleko 9. zkian kokaturik dagoen solairuarteko lokalaren erabilera komertziala etxebizitzatarako aldatzeko; helburu bakarra Labeaga 44ko errentariak hor bizitzeko hiru apartamentu egokitzea izango da.*

*Aipatutako aldaketa egiteko Construcciones Mugica, S.L. enpresak aldaketak sorrarazten dituen hirigintza-zamak ordaindu beharko ditu, hau da, etxebizitza kopurua haunditzeak eskatzen*

*L. es titular en pleno dominio de la finca sita en la entreplanta del edificio número 9 de la c/ Nekolalde , referencia catastral 0718009, número fijo 5033139N, con superficie aproximada de 200 m2 . Dicho inmueble se situa en el Area A-10 de las vigentes NN.SS. de planeamiento , area cuyo uso es el residencial, en tanto que las entreplantas y locales tienen un uso comercial.*

*II.- Por Resolución de Alcaldía de 25 de mayo de 2004 se declaró el estado de ruina de todo el inmueble sito en Labeaga 44. En dicho inmueble habitan con la condición de arrendatarios D. Aniceto Hidalgo Pérez, D. Federico Gil del Sol Gómez y Dña Gloria Guayo Martín, y Dña Antonia Martinez de Ilarduya Uriarte.. Efectuada dicha declaración de ruina , de común acuerdo entre las partes , se efectuó por el Ayuntamiento de Urretxu, en la persona de su Sr.Alcalde, la labor de mediación oportuna tendente al realojo de los sres. arrendatarios precitados, reaolojo deseado por todas las partes.*

*Tras conversaciones mantenidas entre Construcciones Fco. Mugica, el Sr.Alcalde de Urretxu, y los sres. inquilinos , por la mercantil precitada se ha propuesto realojar a los arrendatarios en la finca descrita en el antecedente primero.*

*III.- Dicha propuesta ha sido informada favorablemente por la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios , por lo que ambas partes reconociéndose capacidad y competencia suficiente formalizan el presente CONVENIO en base a las siguientes*

***ESTIPULACIONES***

***PRIMERA**.-El Ayuntamiento de Urretxu autorizará el cambio de uso de local comercial a residencial de la entreplanta sita en la c/ Nekolalde nº 9*

URRETXUKO UDALA

URRETXU (Gipuzkoa)

*dituen berdegune eta gune libreetarako erabiltzeko lur zorua erosteko diru kopurua, beti ere proportzio honetan: 18 m2 etxebizitza berri bakoitzeko. Gune libre edo berdegune m2 bakoitzaren balioa Foru Dekretuan ezarritako baloreen arabera finkatuko da, hain zuzen ere hiri alorreko ondasun higiezinen balio katastrala eta merkatuko bataz besteko prezioen bitartez egiaztatutako balioa zehazteko prozedura onartzen duen Foru Dekretua.*

*Dagokion zenbatekoa, hitzarmen honi bide eman dioten etxebizitza aldaketak amaitzen joan ahala ordainduko da, aldez aurretik Udalaren esku jarrita, honek etxebizitzak merkatuan jar ditzan.*

***BIGARREN.-** Erabilera aldaketa gauzatzeko, Construcciones Mugica, S.L. enpresak egin beharreko obrak egin beharko ditu etxebizitzak egokitzeko, aldez aurretik udalaren obra-baimena lortuta. Egokitze hori planeamenduak eta indarrean dagoen legediak eskatutako gutxieneko bizigarritasun baldintzetan egin beharko da.*

***HIRUGARREN.-** Construcciones Mugica, S.L enpresak aipatutako solairuartean egokituko diren hiru etxebizitzen lehen okupazioko udal baimena lortu ondoren, egindako erabilera aldaketaren behin-betiko ziurtagiria egingo du Udalak, eta enpresak dagozkion errentamendu-kontratuak sinatuko ditu Aniceto Hidalgo Perez jaunarekin, Federico Gil del Sol Gomez jaunarekin eta Gloria Guayo Martin andrearekin, eta Antonia Martinez de Ilarduya Uriarte andrearekin. Aipatutako kontratu horiek biziartekoak izango dira, pertsonalak eta beste inori utzi ezinak, eta errentatzaileari ordaindu beharreko errentak hilean 100 eta 130 euro bitartekoak izango dira, Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagokion KPIren arabera urtero berrikusi ahal izango direlarik. Urretxuko Udalak berrikusiko*

*descrita en el antecendente I, con el fin exclusivo de habilitar tres apartamentos para realojar a los arrendatarios de Labeaga 44.*

*Dicho cambio de uso está sometido al abono por parte de Construcciones Mugica S.L., de las cargas urbanísticas que origina este cambio, esto es el importe correspondiente a la adquisición de suelo destinado a zonas verdes y espacios libres que el incremento de número de viviendas exige, en una proporción de 18 m2 por cada nueva viviendas. El valor de cada m2 de espacio libre o zona verde se fijará en función de los valores establecidos en el Decreto Foral por el que se aprueba el procedimiento para la determinación del valor catastral y el valor comprobado a través del medio de precios medios de mercado, de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.*

*El importe que corresponda se abonará, una vez se vayan extinguiendo los realojos que dan lugar a este convenio, y previa la puesta a disposicion del ayuntamiento para la puesta de las viviendas en el mercado.*

***SEGUNDA.-** Para que el cambio de uso se materialice, Construcciones Fco. Mugica S.L. deberá proceder a la ejecución de las obras correspondientes de adecuación de viviendas, previa la obtención de la preceptiva licencia de obras municipal. Dicha adecuación se deberá ajustar a las condiciones de habiltabilidad mínimas exigidas por el planeamiento y la legislación vigentes.*

***TERCERA.-** Obtenida por Construcciones Mugica S.L. la licencia municipal de primera ocupación de las tres viviendas que se habiliten en la entreplanta de referencia, por el Ayuntamiento se expedirá certificación definitiva del cambio de uso producido, y la citada mercantil procederá a la firma de*

*ditu kontratu horiek.*

***LAUGARREN.-** Erabilera aldaketa honen xede diren errentamendu-etxe aldaketak amaiturik, Construcciones Mugica, S.L. enpresak Urretxuko Udalaren esku jarriko ditu etxebizitzak, honek merkatuan jartzeko, beti ere une horretan indarrean izango den erabilera aldaketa arautuko duen ordenantzaren arabera.*
*Etxebizitzak merkatuan jartzeko honako hauek bete beharko dira:*
- *interesatu egon litezkeenen artean zozketa publikoa*
- *etxebizitza bakoitzaren gehiengo prezioa, eskuz aldatzen den lehen aldiz, bigarren aldiz eta hurrengoetan, une bakoitzean indarrean dagoen BOE (babes ofizialeko etxebizitzen) prezioen arabera kalkulatuko da, eta horri 1,4ko koefizientea aplikatuko zaio*
- *lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea Urretxuko Udalaren alde, lehen eskualdaketa ordaindua gauzatzen denetik 20 urteko epe barruan.*

***BOSGARREN.-** Erabilera aldaketaren baimena jabetza-eskubidea salbu utzita egingo da, hirugarrenei kalterik eragin gabe, eta era berean, hala badagokio, jarduketak eska ditzakeen jabetza horizontaleko tituluaren aldaketak ere salbu utzita.*

**Bigarren.-** Alkate jaunari baimena ematea horretarako behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

**8.- Planeamenduko AASSen berrikuspena.**

**a) Hasierako onespenari alegazioak**

Alkate jaunak aditzera eman du, AASSen berrikuspenaren hasierako

*los oportunos contratos de arrendamiento con los sres. D. Aniceto Hidalgo Pérez, D. Federico Gil del Sol Gómez y Dña Gloria Guayo Martín, y Dña Antonia Martinez de Ilarduya Uriarte. Dichos contratos tendrán carácter vitalicio, personal e instransferible, y las rentas a abonar por los mismos al arrendador oscilarán entre 100 y 130 € mensuales, revisables anualmente en función del I:P:C. correspondiente a la Comunidad Autónoma del Páis Vasco. Dichos contratos serán visados por el Ayuntamiento de Urretxu.*

***CUARTA.-** Finalizados los arrendamientos-realojos objeto de este cambio de uso, Construcciones Mugica S.L. pondrá las viviendas a disposición del Ayuntamiento de Urretxu para su puesta en el mercado, de acuerdo con la Ordenanza reguladora de cambio de uso vigente en el momento*
*Dicha puesta en el mercado de las viviendas está sujeta a:*
- *sorteo público entre los posibles interesados*
- *precio máximo de venta de cada vivienda en primeras, segundas y posteriores transmisiones, que se calculará en función del precio de VPO vigente en cada momento, al que se le aplicará el coeficiente de 1,4 .*
- *a un derecho de tanteo y retracto en favor del Ayuntamiento de Urretxu, durante un plazo de 20 años desde que se formalice la primera transmisión onerosa de las mismas.*

***QUINTA.-** La autorización del cambio de uso se realizará a salvo del derecho de propiedad, y sin perjuicio de terceros, así como de las modificaciones del título de propiedad horizontal que , en su caso, la intervención pudiera exigir.*

**Segundo.-** Facultar al Sr.Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

onespen dokumentuari aurkeztutako alegazioei buruzko txostenean agertzen den bezala, gai hau aspalditik datorren gaia dela; hortaz, gertatutakoaren ibilbidea azaldu nahi du. Gogora ekarri du 2005eko uztailean boto eskubidea duten udalkide guztiek aho batez eman ziotela hasierako onespena AASSen berrikuspenari, hainbat alegazio jaso zirelarik, eta 2005eko abendurako dena prest zegoela onartu ahal izateko, bai alegazioen ebazpena, bai behin-behineko onespenaren dokumentua. Egun batzuk lehenago EAJko Herriko Batzordeko lehendakariak osoko bilkuraren deialdia atzeratzeko eskatu zion, Ipeñarrieta-Irimoko area aztertzeko. Hori horrela, hilabeteko epea adostu zen bien artean beharrezko txostenak eskatu ahal izateko, eta denboraldi horretan Spri delakoak esku hartzeko aukerarik ez bazegoen, onartu egingo zela AASSen berrikuspen dokumentua. Esan du gainera, hainbat arrazoi direla medio, eten egin zirela elkarrizketak, eta jendaurreko agerpenak egin zituztela gai honetan sartuta zeuden guztiek; martxoan, berriz, EA ez beste talde politiko guztiek ezezkoa azaldu zioten eremu horretan erabilera industriala eta baita tertziarioa ere izateko posibilitateari. Horren aurrean gaia eztabaidatu eta berriro bideratzeko ahalegina egin zen, baina aipatutako eremuan erabilera biak izatearen ideiarekin kontsentsuari eustea ezinezkoa zela ikusita, EA alderdiak bere jarrera proposatu zuen, hain zuzen ere arazoa desblokeatzeko, eta AASSen berrikuspenaren %90a suposatzen duen gainontzekoa aurrera ateratzeko ahaleginean; hori guztia horrela, Irimo-Ipeñarrieta

**<u>8.- Revisión NN.SS planeamiento.</u>**

**<u>a) Alegaciones a la aprobación inicial</u>**

El Sr.Alcalde dice que tal y como aparece en el informe sobre las alegaciones presentadas al documento de aprobación inicial de la revisión de NN.SS, este es un asunto que viene de hace largo tiempo, por lo que quiere hacer un recorrido de los hechos. Recuerda que en julio de 2005 se otorgó, por unanimidad de todos los corporativos con derecho a voto, la aprobación inicial a la revisión de NN.SS, se procedió a la preceptiva información pública, recibiéndose diversas alegaciones, estando todo preparado en diciembre de 2005 para presentar a aprobación tanto la resolución de las alegaciones como el documento de aprobación provisional. En vísperas de esta fecha, el presidente de la Junta Local del PNV le solicita un retraso en la convocatoria del oportuno pleno para estudiar el área de Ipeñarrieta-Irimo. Así se pacta entre ambos un período de un mes para recurrir a los informes necesarios, indicándose que si en ese periodo no había posibilidad de intervención de la Spri se aprobaría el documento de revisión de NN.SS . Sigue diciendo que por diferentes razones, se interrumpen las conversaciones, dándose apariciones públicas por parte de todos los implicados en el asunto, y en marzo se encuentra con una negativa de todos los grupos políticos, excepto EA, a la posibilidad de que los usos en esa zona fuera industrial y tambien terciario. Ante esto se intentó debatir el asunto y reconducirlo, pero a la vista de que era imposible mantener

eremua zegoen bezala mantentzeari adostasuna ematea proposatu zuen, beste talde politiko batzuk nahi zuten moduan, eta PSE-EE taldeak ez bezala, egoera honen aurrean “isiltasuna izan baitzen bere erantzuna”, gobernu taldearen arazo bat zela argudiatuz. Aditzera eman du Alderdi Popularrak esan zuela une hartan erabilera tertziarioa jasotzen ez bazen hasierako koherentzia mantenduko zuela, AASSen berrikuspen dokumentua onartzearen aldeko jarrera azalduz, eta Molina zinegotzi jaunak modu berean jokatu zuelarik; bestalde, EAJ taldeak aditzera eman zuen ez zela sartuko EAk planteatutako epeen jokoan, hau da AASSak onartzen zirenetik sei hilabeteko epe barruan, aipatutako eremuan erabilera industriala soilik mantenduta Sprik ez bazuen garapen proposamen serio bat egiten, eremuaren garapena bultzatzeko hartu beharreko erabakiak hartuko zirela, garapen industriala izan nahiz tertziarioa izan.

Azalpen hori egin ondoren, alkate jaunak aditzera eman du EA taldearen asmo bakarra industria lerro hori lehengora ekartzea dela, izan ere, zoritxarrez, degradatuta baitago, industria asko eta asko itxita edo ixteko zorian, eta beraz, lehenengo azterlana erabilera industrial horren aukera birsortzea litzateke, baina ahaztu gabe horren garapenak zailtasun haundiak dituela. Jarraian esan du EAJk jakinarazi ziola ez zegoela prest inolako eperik ezartzeko, eta hortaz EAk proposatu zuen eremua zegoen bezala uztea, eta inongo eperik gabe.

Esan du gainera EAJk, herri batzarra egin ondoren, modu honetan

el consenso con la idea de que la zona precitada contuviera ambos usos, EA plantea su posición al respecto para así tratar de desbloquear el asunto y sacar adelante el otro 90 % que supone la revisión de NN.SS, por lo que plantea su conformidad a que la zona de Irimo-Ipeñarrieta se mantenga tal y como está actualmente, como así querían otros grupos políticos, que no así el PSE-EE quien ante la situación dio la “ callada por respuesta” aduciendo que se trataba de un problema del equipo de gobierno. Señala que el PP sí manifestó en aquel momento que si no se recogía el uso terciario en la zona aludida seguiría manteniendo su coherencia inicial, mostrando su posición favorable a la aprobación del documento de revisión de NN.SS. actuándo de la misma forma el concejal Sr.Molina, mientras que el PNV manifestó que no iba a entrar en el juego de los plazos planteados por EA, esto es que si en el plazo de 6 meses desde la aprobación de NN.SS. manteniéndo el area exclusivamente con uso industrial, la Spri no planteaba una propuesta seria de desarrollo se procedería a adoptar los acuerdos oportunos para impulsar el desarrollo de la zona, tanto industrial como terciariamente.

Tras esta exposición, el Sr. Alcalde manifiesta que la única intención de EA ha sido la de regenerar esa línea de industrias que desgraciadamente esta degradada y con muchas de sus industrias cerradas o condenadas al cierre, explorando siempre en primer lugar la posibilidad de esta regeneración con un uso industrial, pero sin olvidar que su desarrollo entraña múltiples dificultades. Sigue

erantzun ziola AASSen berrikuspenaren inguruan sortutako arazoari:

- Irimo-Ipeñarrieta lerroak, euren ustez, bakar-bakarrik erabilera industriala izan behar zuen.
- Beharrezko lur sailen titularitatea eduki ezean, hiri-parkearen sistema orokorraren aurkako jarrera azaldu zuten.
- Solairuarteko lokalen titularitatea-ren epeari dagokionez, aldaketa proposatzen zuten.

EAren izenean honako hauek adierazi ziren: solairuarteko lokalen inguruan ez zela ezer eztabaidatuko, AASSen osotasunean garrantzi gutxikoa dela uste dutelako, eta ezin dela oztopo izan arauentzako; Irimo-Ipeñarrieta lerroa orain arte bezala mantentzen zela, eta hiri-parkeari ukitzen dioten lur sailen titularrekin idatzizko konpromisoak edukitzea; beraz, horiek adierazi eta hainbat elkarrizketaren ondoren, EAJk aditzera eman zuen ez zegoela ados, euren ustez ez zirelako beraien nahiak asetzen. Hortik aurrera, Ikastolaren presioak medio, AASSen aldaketa zehatza, Ikastolako eremuari zegokionez, egiteko proposamena egin zitzaigun. Azkenik, alkate jaunak aipatu du EAk beti esan izan duela interes orokorrak partikularren gainetik egoteko lan egiten ahalegindu behar dela; horregatik saiatu dira ahalik eta gehien herriarentzako ustez ona dena aurrera eramaten, beste modu batera esanda, osoko bilkura honetan proposatzen den AASSen berrikuspenari behin-behineko onespena ematen. Azkenik, Molina jaunari eta Alderdi Popularreko ordezkariari eskerrak eman dizkie

diciendo que el PNV le comunicó que no estaba dispuesto a entrar en la fijación de ningún plazo, por lo que EA propuso mantener la zona tal y como está y sin plazo alguno.

Añade que el PNV, tras su asamblea local, respondió a la problemática surgida en torno a la revisión de NN.SS en este sentido:

- la linea de Irimo –Ipeñarrieta se entendía con un uso exclusivamente industrial
- se posicionaban en contra del sistema general del parque urbano, si no se disponía de la titularidad de los terrenos necesarios
- planteaban un cambio en el plazo de titularidad de las entreplantas.

Tras haber manifestado en nombre de EA, que no se se iba a discutir nada respecto a las entreplantas porque se entendía que su escasa relevancia dentro del conjunto de las NN.SS no podía ser un obstáculo a las mismas, que se mantenía la linea de Irimo-Ipeñarrieta tal y como está actualmente, y tener compromisos incluso por escrito con titulares de los terrenos afectos por el parque urbano, a día de hoy, tras diversas conversaciones, el PNV manifiesta que no está de acuerdo porque entiende que no se satisfacen sus pretensiones. A partir de ahí , ante presiones de la Ikastola, se nos hace un planteamiento de modificación puntual de NN.SS referida a esa zona de Ikastola. Por último el Sr.Alcalde señala que EA siempre ha mantenido que hay que intentar trabajar para que el interés general prevalezca sobre el interés particular, por éllo se ha intentado todo lo posible para llevar

prozesu osoan mantendu duten koherentziagatik.

Jarraian, behin-behineko onespena-ren ondoren irekitako jendaurreko informazio epe barruan aurkeztu ziren alegazioak irakurri dira, eta horiek ebazteko txostena ere bai:

Hitz egiteko txanda irekita, Urrestarazu jaunak hitza eskatu du eta aditzera eman du alegazioei buruzko erantzunak ez dituela asebete; esan du gainera, euren ustez euskaraz egon behar zukeela. Aipatu du baita ere 7.000 biztanle izan nahi duen udalerri batek, berrikuspen agirian horixe ematen baitu, dokumentu honetan aurreikusten direna baino ekipamendu gehiago behar dituela; uste dute gainera ez dela aztertu ondoko herriarekin izan dezakeen eragina, eta gogora ekarri dute DOT delakoek (lurraldearen antolamendu-rako irizpideak) bakarrik babeseko etxebizitza eraiki behar dela diotela.

Alkate jaunak honako hau erantzun dio:

- arrazoi du euskarari dagokionez; aipatu duenez, agiria euskaraz ere izango da, itzulpen prozesuan baitago.
- Proposatzen ari diren etxebizitza kopuruak barruko eskabidea pixkanaka-pixkanaka asetzen joateko dira, muga 440 etxebizitzatan ezarri delarik, eta horietatik %50 babesekoak aurreikusten dira. Ekipamendu nahikoa dago eta berriak sortzea ere aurreikusten da, nahiz eta beti pentsa litekeen zenbat eta gehiago izan, hobe.

adelante lo que entienden bueno para el municipio, que no es otra cosa que la revisión de las NN.SS cuya aprobación provisional se propone hoy en esta sesión plenaria. Finaliza su intervención agradeciendo al Sr.Molina y a la representante del P.P la coherencia mantenida durante todo este proceso.

Seguidamente se procede a dar lectura a las alegaciones presentadas en el periodo de información pública abierto tras la aprobación inicial, y al informe emitido para su resolución:

Iniciado el turno de intervenciones el Sr. Urrestarazu pide la palabra y manifiesta que no les ha satisfecho la respuesta a las alegaciones presentadas, añadiendo que entienden además que debería haber estado en euskera. Añade que un municipio en el que se pretenden 7.000 habitantes , tal y como parece desprenderse del documento de revisión, necesita de más equipamientos que los que se contemplan en este documento, consideran que no se ha estudiado la incidencia que pudiera tener con e municipio vecino, y recuerdan que las DOT señalan que se debe edificar solo vivienda protegida.

El Sr. Alcalde le responde diciendo que:

- efectivamente tiene razón en cuanto al euskera, indicando que el documento también estará en euskera ya que se encuentra en proceso de traduccion
- que las cifras de vivienda que se están planteando son para satisfacer progresivamente la propia demanda interna con un

- DOT delakoek gune historikoaren berreskurapena aipatzen dute, eta bere ustez orain arte lortutakoa oso positiboa da.

- Zumarragarekiko harremanak direla eta, aditzera eman du, Urrestarazi jaunak dakien bezala, bi lagunek hitz egiteko biek nahi izan behar dute; beraz, alderdi batek ez badu nahi, zaila da elkarrizketa bat edukitzea.

Urrestarazu jaunak aditzera eman du tristea iruditzen zaiola bi alkatek horrelako jarrera agertzea euren harremanetan, eta babeseko etxebizitzen portzentaiari dagokionez, bere iritziz ez da nahikoa, ahaztu gabe gainera horrelako etxebizitzak hipotekatzen ari direla bide berri bat ordaintzeko, batzuen negozioari lehentasuna emanez.

Alkate jaunak adierazi duenez, berrikuspen dokumentuan egindako azterketa ekonomikoan, etxebizitzen tipologia kalkulatu aurretik deskontatuta dago bide berriaren karga eta etekin industriala, eta modu horretan ateratzen da hemen proposatu den etxebizitza kopurua.

Molina jaunak hitza eskatu eta gogora ekarri du, bi alkateen arteko komunikazio faltari dagokionez, bi udalerriekin zerikusia zuten gaiak eztabaidatzeko egingo ziren elkarrizketetan haiek erretiratzea proposatu zela, eta zinegotziek egotea gai horien eztabaidan; hori horrela, Urretxuko Udalak onartu egin zuen proposamena, eta Zumarragako Udaletik ez da erantzunik jaso.

tope de 440 viviendas, de las cuales el 50% se prevén de tipo protegido. Existen equipamientos suficientes y también se prevén la creación de nuevos, aunque siempre se puede pensar que cuantos más existan mejor.
- Efectivamente las DOT hacen referencia a la recuperación del casco histórico, y entiende que lo que se ha conseguido hasta ahora es muy positivo.
- Respecto a las relaciones con Zumarraga, manifiesta que tal y como conoce ya el sr.Urrestarazu, para que puedan hablar dos tiene que querer ambos, por lo que si una de las partes no lo desea difícilmente se puede llegar a un diálogo.

El sr.Urrestarazu manifiesta que le parece triste que dos alcaldes estén dando este tipo de comportamientos en sus relaciones, y respecto al porcentaje de vivienda protegida, a su juicio, es insuficientemente sin olvidar además que este tipo de viviendas se están hipotecando para costear un nuevo vial y primera el negocio de algunos.

El sr.Alcalde expone que en el estudio económico realizado en la elaboración del documento de revisión, previo al cálculo de la tipología de las viviendas , está descontada la carga del nuevo viario y el beneficio industrial, resultando así el numero de vivienda protegido planteado.

El sr.Molina pide la palabra para recordar, respecto a la falta de comunicación de ambos alcaldes, que se planteó la retirada de los mismos

Eztabaida amaituta, Planeamenduko AASSen berrikuspenaren dokumentuari hasierako onespena eman ondoren irekitako jendaurreko informazio aldian aurkeztu ziren alegazioei buruzko ebazpena botoetara eraman da; baiezko botoa eman dute alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegotziek (7 boto), eta aurkakoa Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto); horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Promotora Irimotalde, S.L. enpresak aurkeztutako lehenengo alegazioa, S.E. 2396, ez onartzea, izan ere A.I.U.23 jarduketa eremuaren barruan ez baita sartuko erabilera tertziariorik, eta nolanahi ere PERI delakoa izango da beste zenbait xehetasunei buruzko erabakiak jasoko dituen tresna, hala nola aprobetxamenduen banaketaren modua, eraikuntzaren baldintza partikularrak, eta urbanizazioaren deskripzio zehaztua eta bere gestioa.

**Bigarren.-** Ignacio Galdona Gisasola jaunak aurkeztutako bigarren alegazioa, S.E. 2405, ez onartzea. Hona hemen arrazoiak:
- A.I.U.36 - Hiri Parkearen garapenerako aukeratua izan den figurari dagokionez, gaurdaino indarrean dauden Planeamenduko AASSen barruan area horretarako ezarrita dagoena bakarrik jasotzen du berrikuspen dokumentuak
- Baserri batzuetarako sarbideari buruz eta trenbide zaharra bidegorri baten bidez berreskuratzeari buruz adierazitakoa ez dira alegazioak berez, baizik eta hartutako erabaki

en las conversaciones que hubiera que mantener para tratar asuntos que afectan a ambos municipios, siendo los concejales quienes trataran de los mismos, habiéndose aceptado la propuesta por parte de este Ayuntamiento de Urretxu, y no obteniendo respuesta por parte de Zumarraga.

Finalizado el debate se somete a votación la resolución de las alegaciones presentadas en el periodo de información pública abierto tras la aprobación inicial del documento de revisión de NN.SS de planeamiento, y con los votos a favor del Sr.Alcalde, y los concejales, Sr. Zufiaurre, Sr. Otermin, Sr. Téllez, Sr. Aztiria, Sr. Molina y Sra. Pereira ( 7 votos), y los votos en contra de los concejales Sra Agirre, Sr . Errazu, Sr. Pérez, Sra. Zabaleta, y Sr. Toral ( 5 votos) se acuerda:

**Primero.-** Desestimar la alegación primera, R.E. 2396, presentada por Promotora Irimotalde S.L., por cuanto que los usos terciarios no van a tener cabida dentro del ámbito de actuación del A:I.U.23 , siendo en cualquier caso el PERI el instrumento que deberá recoger las determinaciones detalladas referentes a la forma de distribución de los aprovechamientos, las condiciones particulares de la edificación, así como la descripción detallada de la urbanización y su forma de gestión.

**Segundo.-** Desestimar la alegación segunda, R.E. 2405, presentada por D. Ignacio Galdona Guisasola. Dado que:
- respecto la figura elegida para el desarrollo del A.I.U.36-Parke

batzuen aurkako adierazpenak.

**Hirugarren.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak aurkeztutako hirugarren alegazioa, S.E. 2408, zati batean onartzea. Horrela:

- C dokumentuan “Katalogoa” sartzen dira “Iparragirre kaleko etxe multzoa”, interes historiko-artistikoko monumentu probintzial gisa aitortutako gainontzeko elementuekin batera, beti ere 1964ko urtarrilaren 17ko Aginduaren arabera, eta uztailaren 3ko 7/1990 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa, ondasun kultural sailkatutzat hartzen direnak.
- Berrikuspen dokumentuaren Katalogoan, Berrikuntza interbentzioko kategoriaren barru, sartzen dira galtzada zaharraren zatiak (Altamira, Santa Barbara, Deskarga), eta Aita Pasiotarren eliza.
- AASSetako Katalogoaren barruan Berrikuntza interbentzioari lotutako elementuak Kontserbazio eta Apaintasuneko interbentziora pasako dira behin-behineko onespen dokumentuan, beti ere 317/2002 Dekretuan ezarrita dagoenaren arabera. Gainera, elementu horiei Gerra, Erosidueta, Beain eta Ertxolegi baserriak erantsiko zaizkie.
- Zuzendu egiten dira behin-behineko onespen dokumentuan 1997ko irailaren 11ko ebazpenaren ildotik atzemandako akats guztiak.
- Ez dira inongo interbentzio kategoriatan sartu ondorengo hiri-eraikin hauek: Labeaga kaleko 8,

Urbanoa, el documento de revisión unicamente recoge lo establecido para esta área dentro de las NN.SS de planeamiento en vigor hasta la fecha
- lo manifestado respecto al vial de acceso a algunos caseríos y la recuperación de la antigua vía del tren mediante un bidegorri, no constituyen alegaciones en sí, sino pronunciamientos en contra de las decisiones tomadas a este respecto.

**Tercero.-** Estimar parcialmente la alegación tercera, R.E. 2408, presentada por la Dirección de Cultura de Diputación Foral de Gipuzkoa. Así:

- se incluye en el documento C “ Catálogo” el “ grupo de casas de la calle Iparragirre” junto al resto de elementos declarados monumento provincial de interés histórico-artístico según la Orden de 17 de enero de 1964, y que según la Disposición Adicional Primera de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco han pasado a tener la consideración de bienes culturales calificados
- se incluye en el Catálogo del documento de Revisión, dentro de la categoría de intervención de Reforma, los tramos existentes de la antigua calzada ( Altamira, Santa Bárbara, Deskarga), y la Iglesia de los Padres Pasionistas
- los elementos sujetos a una intervención de Reforma incluidos en el Catálogo de las NN.SS., pasarán, en el documento de aprobación provisional, a una intervención de Conservación y Ornato tal y como viene definida en el Decreto 317/2002. Ademas a

31, 36, (34,28), 50 eta 62 zenbakiak; ezta Ipeñarrieta kaleko 1. zkia ere, ez eta Ipeñarrietako kaleko 58. Zkian dagoen Irimo eraikina ere, horretarako behar besteko balio arkitektonikorik ez dutela uste baita.

- Ez da kontuan izan San Juan de Zabaletako ermita, gaur egun ez delako existitzen.

**Laugarren.-** Proiektutako bide berriari dagokionez, Lilibaso eta Basagastiko bizilagunek aurkeztutako laugarren alegazioa, S.E. 2454, ez onartzea; arrazoiak:

- AASSen berrikuspen dokumentuak ezinbesteko arazo gisa jasotzen du herrian dagoen mugikortasun arazoa konpon-tzearena
- Orain dauden etxebizitza eta industria eremuei, eta baita proposatzen diren garapen berriei ere, herri barruko joan-etorriak bermatuko dizkien bidesare bat eskaintzeko, behar-beharrezkoa da bide egitura josi bat, eta horregatik beharrezko ikusten da Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta ardatzaren paralelo proiektatu den bide berria. Bide berri honen trazatua bat dator proposatutako bizitoki garapen berriekin, Sorginzulo eta Lilibasorekin, baina ez Basagastirekin.

**Bosgarren.-** Gainzuri Ikastetxeak aurkeztutako bosgarren alegazioa, S.E. 2476, ontzat hartzea, aditzera emanez:

- AASSen berrikuspen dokumentuak ezinbesteko arazo gisa jasotzen du herrian dagoen mugikortasun arazoa konpon-tzearena

estos elementos se les sumarían los caseríos Gerra, Erosidueta, Beain y Ertxolegi.

- Se procede a la corrección, en el documento de aprobación provisional, de todos los errores observados en referencia a la Resolución de 11 de septiembre de 1997.
- No se incluye dentro de ninguna categoría de intervención los edificios urbanos nº 8,31,36(34,28), 50 y 62 de la calle Labeaga; ni el nº 1 de la calle Ipeñarrieta; ni el edificio de Irimo en el nº 58 de la calle Ipeñarrieta, por considerar que no reúnen suficiente valor arquitectónico para tal consideración
- No se tiene en cuenta la ermita de San Juan de Zabaleta porque la misma no existe en la actualidad

**Cuarto.-** Desestimar la alegación cuarta, R.E. 2454, presentada por vecinos de Lilibaso y Basagasti respecto al trazado del nuevo vial proyectado, por cuanto que:

- el documento de revisión de NN.SS recoge como una cuestión fundamental a resolver el problema de movilidad existente en el municipio
- con objeto de dotar a las áreas residenciales e industriales existentes, así como a los nuevos desarrollos propuestos, de una red viaria que garantice los desplazamientos internos del municipio se hace necesaria la resolución de una estructura viaria mallada, por lo cual se entiende necesario el nuevo vial proyectado paralelo al eje Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta. Nuevo vial cuyo trazado coincide con los

- Orain dauden etxebizitza eta industria eremuei, eta baita proposatzen diren garapen berriei ere, herri barruko joan-etorriak bermatuko dizkien bidesare bat eskaintzeko, behar-beharrezkoa da bide egitura josi bat, eta horregatik beharrezko ikusten da Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta ardatzaren paralelo proiektatu den bide berria.
- Hainbat aukera aztertu ondoren, eta ekonomia eta ingurumen aldetiko inpaktua baloratuta, proposatutako trazatua aurkeratu da, kontuan izanik bidearen zati haundi bat berria izango dela, hain zuzen ere proposatutako bizitoki eremu berriekin bat etorriz, beste zati batzuetan lehendik dauden kaleak aprobetxatuz, Lilibaso edo Sorginzulo bezala, zati honek ukitzen duelarik Gainzuri ikastetxeari.
- Gainzuri Ikastetxeari dagokionez, AASSen berrikuspen dokumentuak ez du proposatzen inongo bide jarduketarik, gaur egun indarrean dagoen planteamenduan jasota baitago hori; nolanahi ere aipatu bide berriak herriko trafikoa hartuko duela soilik, eta beraz, Urretxuko beste edozein kaletan bezalako eragozpen, istripu arrisku eta zaratak sorraraziko ditu.

**Seigarren.-** Anastasia eta Enrique Guisasola Irastorzak aurkeztutako seigarren alegazioa, S.E. 2512, ez onartzea; arrazoiak:

- AASSen berrikuspen dokumentua zortzi urtetarako aurreikuspena da behin-betiko onespen egunetik kontatuz, eta bertan azaldutako dimensiona-menduaren

nuevos desarrollos residenciales propuestos, con Sorginzulo y Lilibaso, pero no con Basagasti.

**Quinto.-** Estimar la alegación quinta, R.E. 2476, presentada por el colegio Gainzuri, señalando que:

- el documento de revisión de NN.SS recoge como una cuestión fundamental a resolver el problema de movilidad existente en el municipio
- con objeto de dotar a las áreas residenciales e industriales existentes, así como a los nuevos desarrollos propuestos, de una red viaria que garantice los desplazamientos internos del municipio se hace necesaria la resolución de una estructura viaria mallada, por lo cual se entiende necesario el nuevo vial proyectado paralelo al eje Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta
- después de barajar diferentes alternativas, y valorando el impacto económico y ambiental se ha optado por el trazado propuesto, teniendo en cuenta que gran parte del vial es de nueva creación, coincidiendo con las nuevas áreas residenciales propuestas, que en otros tramos aprovecha calles ya existentes como Lilibaso o Sorginzulo, tramo este que afecta al colegio Gainzuri.
- Respecto a este colegio Gainzuri, este documento de revisión de NN.SS no plantea ninguna actuación viaria ya que la misma está ya recogida en el planeamiento actualmente vigente, y en cualquier caso señalar que el nuevo viario va a asumir exclusivamente el tráfico urbano, causando las mismas molestias,

hipotesiaren arabera, 440 etxebizitza berri aurreikusten dira, eta horietatik 220 babesekoak izango lirateke.
- Hiru jarduketa aurreikusi dira: 215 etxebizitza Irigoienen, 150 etxebizitza Pagoetan eta 75 etxebizitza Egurtegin, eta horrekin beteta geratuko litzateke etxebizitza berriaren aurreikus-pena.
- Espazio Libreen Sistema Orokorrean erabiltzeko eremuei dagokienez, berrikuspen dokumentuan proposatzen dena biztanleko eskatzen den gutxieneko standarra baino gorago dago askoz ere, eta beraz ez da beharrezko helburu horretarako azalera gehiago aurreikustea.
- AASSek ez dute aurreikusten igerilekuko aparkalekua haunditzeko aukera; beraz, ez du lur gehiago behar.

**Zazpigarren.-** 7 zk. duen alegazioa, S.E. 2515, Herribidek aurkeztutakoa, atzera botatzea; hona hemen arrazoia:
- bere idatziko lehen alegazioan dokumentuaren testua ez dagoela euskaraz aipatzen da, eta itzulpena exijitzen dute. Onartu egiten da alegazioa eta testuaren itzulpena egingo da, behin-betiko onespenerako txertatuko delarik.
- 2., 5., 7. eta 8. alegazioek biztanleriaren eboluazioari buruzko analisi falta aipatzen dute, beti ere zahartzeari eta Urretxuko udal- eta gizarte-egituran horrek sor ditzakeen ondorioei dagokienez; bestalde, Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta ardatzaren bide berri paraleloa

riesgos de accidentes, ruidos que cualquier otra calle de Urretxu

**Sexto.-** Desestimar la alegación sexta, R.E. 2512, presentada por Dña. Anastasia y D. Enrique Guisasola Irastorza, por cuanto que:
- el documento de revisión de NN.SS contempla para un horizonte de ocho años a contar desde la fecha de su aprobación definitiva, y en función de la hipótesis de dimensionamiento formulado, 440 viviendas nueva, de las cuales 220 serían viviendas protegidas.
- Se han previsto tres intervenciones : 215 viviendas en Irigoien, 150 viviendas en Pagoeta, y 75 viviendas en Egurtegi, con lo que quedaría completada la previsión de nueva vivienda.

- La propuesta del documento de revisión de áreas destinadas al Sistema General de Espacios Libres suman un total que supera con creces el estándar mínimo exigido por habitante, por lo que no es necesario prever más superficie destinada a tal uso.

- Las NN.SS no contemplan la posibilidad de ampliación del aparcamiento de las piscinas, por lo que no precisa de más suelo

**Séptimo.-** Desestimar las alegación número 7, R.E. 2515, presentada por Herribide, por cuanto que:
- la primera alegación de su escrito hace referencia a la falta de texto de documento en euskera, cuya traducción exigen. Se asume la alegación y se procederá a la traducción del texto que se

sortu beharraren justifikazioa, ekipamendu berriak ez sortzeko erabakiarekiko desadostasuna, eta ondorio gisa, Arauen Berrikuspen agirian jasotakoaren arabera, eta indarrean dagoen bitartean, garatuko diren proposamenak ekar ditzakeen ondorio sozialen azterketa sakonagoa aipatzen da. Gorabehera horiek guztiak AASSen Aurrerapen dokumentuan jasoak izan ziren, eta 2004ko irailaren 27an behin-betiko onartuak.

Dokumentu horrek gaur egungo gorabehera ekonomiko, sozial, kultural eta abarrei buruzko diagnostikoa egin zuen, eta hura oinarri hartuta, Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuak garatzen dituen irizpide eta helburu garrantzitsuenak ezarri ziren.

Laburbilduz, okupatutako lurra birregoitzeko, amaiera emateko eta josteko baldintzez gain, 440 etxebizitzaren garapen berrirako lur zoruaren eskaintza agertzen du dokumentu horrek, eta era berean, hiriaren egitura osatzeko bidea sortzea, horrela gaur egungo premiei hobeto egokitu ahal izateko, eta jarduera industriala eta tertziarioa biziberritzeko, dibertsifikatzeko eta bultzatzeko.

Egitasmo global batean txertatutako ekimen horien gestio eta exekuzioak Aurrerapen dokumentuan etorkizunari begira proposatzen ziren erronkei modu

incorporará para la aprobación definitiva.

- Las alegaciones 2ª, 5ª, 7ª y 8ª hacen referencia a la falta de análisis de la evolución de la población en relación a su envejecimiento y las consecuencias que ello puede generar en la estructura municipal y social de Urretxu, la justificación de la la justificación de la necesidad de creación de un nuevo vial paralelo al eje Iparragirre-Labeaga-Ipiñarrieta, su disconformidad con relación a la decisión de no crear nuevos equipamientos y en conclusión, un análisis más profundo de las consecuencias sociales que las diferentes propuestas que se plantean desarrollar durante la vigencia del documento de Revisión puedan generar. Todos estos aspectos fueron recogidos en el documento de Avance de las NN.SS. que se aprobaron definitivamente el 27 de Septiembre del 2004.

Este documento realizó un diagnóstico sobre las actuales circunstancias económicas, sociales, culturales, etc., en base al cual establecía los criterios y objetivos principales que desarrolla el documento de Revisión de las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Urretxu

En síntesis, además de las condiciones de rehabilitación, acabado y sutura del territorio ocupado, el documento proyecta una oferta de suelo para el nuevo

egokian erantzuteko behar adina baliabide eman nahi diote udalerriari.

- 3. alegazioak plataformaren beste kezka bat aurkezten du, hain zuzen ere Urretxu eta Zumarragako planeamenduen konpatibilizazioak euren ustez Berrikuspen dokumentuan daukan “oihartzun eskasari” dagokionez.

1997ko otsailaren 11ko Dekretuaren bidez onartutako “Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Norabideetan” jasotako gomendioei jarraiki, Urretxu eta Zumarragako planeamenduen konpatibilizazioaren beharra jasotzen du dokumentuak, eta horretarako, Urretxuko Berrikuspen dokumentuaren idazle taldea Zumarragako AASSen Berrikuspen dokumentuaren idazle taldearekin bildu zen.

Ikusi zen proposamen horiek udalerri bakoitzean aldaketa eta hobekuntza garrantzitsuak ekarriko badituzte ere, zuzenean ez dutela eraginik izango ondoko herrian onartutako erabakien multzoan, eta horregatik ez zen inongo neurri bateraturik hartu. Nolanahi ere, baliagarri izan zen ikusteko zer nolako garrantzia duten, euren kokapenagatik, A.I.U. 23 “Ipeñarrietako Industrigunea” bezalako areak, eta horrekin batera Zumarragako geltoki intermodalarekin gerora begira gerta litekeen garapenak, eta bertan sor litezkeen jarduera ekonomikoen garapenean hark izan dezakeen eragina.

- 4. alegazioan, etxebizitza sozialen politikaren arloari dagokionez,

desarrollo de 440 viviendas, creación de un vial que complete la estructura urbana y así adaptarse mejor a las necesidades de hoy en día y una revitalización, diversificación e impulso de la actividad industrial y terciaria

La gestión y ejecución de dichas iniciativas integradas en un proyecto global pretenden dotar al municipio de los medios suficientes para abordar adecuadamente los retos del futuro que se planteaban en el documento de Avance

- La 3ª alegación presenta la preocupación de la plataforma en relación a la “escasa repercusión” que entienden ellos tiene la compatibilización de planeamientos de Urretxu y Zumarraga en el documento de Revisión.

El documento, siguiendo con las recomendaciones hechas en las “Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco” aprobadas mediante Decreto de 11 de Febrero de 1997, recoge la necesidad de compatibilización de los planeamientos de Urretxu y Zumarraga, y con ese fin, el equipo redactor del documento de Revisión de Urretxu se reunió con el equipo redactor del documento de Revisión de las NN.SS. de Zumarraga.

Se constató que si bien esas propuestas generarán importantes cambios y mejoras en cada uno de los municipios, no interferirán directamente en ningún aspecto del conjunto de decisiones aprobadas en

udal mailan ahalegin haundiagoa proposatzen dute.

Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuak zortzi urtetarako etorkizuna aurreikusten du proiektu hau behin-betiko onartzen den egunetik kontatuz, beti ere zehaztutako dimentsionamenduaren hipotesiaren arabera, eta bertan 440 etxebizitza berri aurreikusi dira, horietatik 220 etxebizitza sozialak izanik, etxebizitza berrien eskaintzaren %50a.

Horrez gain, bizitegitarako lurzoru hiritarraren barruan, etxebizitzarako erabilera onartzen da solairuarteko lokaletan, beti ere “Jarduerak arautzen dituen Ordenantzan” ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badituzte; etxebizitza mota hori prezio tasatuaren eta lehentasunez nahiz atzera erosteko eskubidearen menpe izango da, indarrean dagoen legeriak babes ofizialeko etxebizitzetarako exijitzen duen modu berean.

**Zortzigarren.-** Luis Mª Arrieta Arrizabalaga jaunak aurkeztutako 8. Zk duen alegazioa, S.E. 2518, ez onartzea; arrazoiak:

- Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuak zortzi urtetarako etorkizuna aurreikusten du proiektu hau behin-betiko onartzen den egunetik kontatuz, beti ere zehaztutako dimentsionamenduaren hipote-siaren arabera, eta bertan 440

el municipio contiguo, por lo que no se adoptó ninguna medida conjunta. En cualquier caso, sirvió para constatar la importancia por su ubicación de áreas como la A.I.U. “23-Ipeñarrietako Industrigunea” junto a un hipotético futuro desarrollo de la estación intermodal de Zumarraga, y la repercusión que esta pudiera tener en el desarrollo de las actividades económicas que en ella se generen.

- en la 4ª alegación proponen un mayor esfuerzo a nivel municipal en materia de política de vivienda social.

  El documento de Revisión de las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Urretxu, contempla para un horizonte de ocho años a contar desde la fecha de la aprobación definitiva del presente proyecto y en función de la hipótesis de dimensionamiento formulado, 440 viviendas nuevas, de las cuales 220 serían viviendas sociales, el 50% de la oferta de vivienda nueva.

  Además dentro del suelo urbano residencial, se permite el uso de vivienda en locales de entreplanta que reúnan las condiciones mínimas establecidas en la “Ordenanza reguladora de las actuaciones, sometiéndose este tipo de viviendas a un precio tasado y a un derecho de tanteo y retracto de la misma forma que la legalidad vigente exige para las viviendas de protección oficial.

**Octavo.-** Desestimar la alegación número 8, R.E 2518, presentada por D. Luis Mª Arrieta Arrizabalaga, por

etxebizitza berri aurreikusi dira, horietatik 220 etxebizitza sozialak izanik, etxebizitza berrien eskaintzaren %50ª.
Hiru jarduketa aurreikusi dira: 215 etxebizitza Irigoienen, 150 etxebizitza Pagoetan eta 75 etxebizitza Egurtegin, beti ere eremu edo area bakoitzari izendatutako karga urbanistikoen azterketaren arabera egindako banaketa, horietan guztietan onuren eta kargen banaketan ekitateari lehentasuna emanez.
Hiru jarduketa horiekin beteta geratuko litzateke aurreikusitako 440 etxebizitza berrien kopurua, eta beraz ez da aurreikusten etxebizitza kopurua haunditzea.

**Bederatzigarren.-** Bitartean Merkatarien Elkarteak aurkeztutako 9 zk duen alegazioa, S.E. 2519, zati batean onartzea; horrela, aipatu:

- A.I.U.23 eremuaren behin-betiko fitxak aldaketa batzuk jasotzen dituela, eta horien bitartez eremu osorako garapen erregimen bakarra ezartzen da, Barne Berrikuntzarako Plan Berezi bat, alegia, eremu horretan erabilera industriala soilik onartuz. Hau da eremu horren barruan ez dute lekurik izango erabilera tertziarioek, eta nolanahi ere PERI delakoa izango da beste zenbait xehetasunei buruzko erabakiak jasoko dituen tresna, hala nola aprobetxamenduen banaketaren modua, eraikuntzaren baldintza partikularrak, eta urbanizazioaren deskripzio zehaztua eta bere gestioa.

**Hamargarren.-** 10. alegazioa, S.E. 2520, Mª Carmen eta Jose Ramon

cuanto que:

- El documento de Revisión de las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Urretxu, contempla para un horizonte de ocho años a contar desde la fecha de la aprobación definitiva del presente proyecto y en función de la hipótesis de dimensionamiento formulado, 440 viviendas nuevas, de las cuales 220 serían viviendas sociales, el 50% de la oferta de vivienda nueva.

Se han previsto tres intervenciones: 215 viviendas en Irigoien, 150 viviendas en Pagoeta y 75 viviendas en Egurtegi, distribución hecha en función del estudio de las cargas urbanísticas asignadas a cada una de las áreas y prevaleciendo la equidad en el reparto de beneficios y cargas en todas ellas.
Con estas tres intervenciones quedaría completado el total de 440 nuevas viviendas previstas por lo que no se contempla aumentar el número de viviendas

**Noveno.-** Estimar parcialmente la alegación número 9, R.E 2519, presentada por la Asociación de Comerciantes Bitartean, y así señalar:

- que la ficha definitiva del área A.I.U 23 recoge una serie de modificaciones por las que se establece un único régimen de desarrollo para el conjunto del área, un Plan Especial de Reforma Interior, permitiéndose únicamente el uso industrial en la zona. Esto es los usos terciarios no van a tener cabida dentro del ámbito, siendo en cualquier caso el PERI

Ruiz de Alegria Beltran de Nanclares jaun-andreek aurkeztua:

- II. HIRIGINTZA-ERREGIMEN OROKORRA atalaren barruan, eraikuntzaren parametroei buruzko testua zuzendu egiten da, osatu gabe baitzeuden. Hortaz, ontzat hartzen da alegazioa, beti ere eraikuntzaren parametroen definizioan zegoen akatsa aitortzearen aldetik.

- Bidearen trazatuari dagokionez, AASSen berrikuspen dokumentuak ezinbesteko arazo gisa jasotzen du herrian dagoen mugikortasun arazoa konpon-tzearena.

  Orain dauden etxebizitza eta industria eremuei, eta baita proposatzen diren garapen berriei ere, herri barruko joan-etorriak bermatuko dizkien bidesare bat eskaintzeko, behar-beharrezkoa da bide egitura josi bat, eta horregatik beharrezko dugu Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta ardatzaren bide paraleloa eraikitzea.

  Bide berri honen deseinua egiteko zailtasunik haundiena herriaren orografian dago, denok ezagutzen dugun bezala.

  Bidearen trazatua egiteko hainbat aukera aztertu ondoren, eta ekonomia eta ingurumen aldetiko inpaktua baloratuta, proposatutako trazatua aurkeratu da.

  Bide berria hobekuntza bat da herri mailan, eta ezinbestean endredoak sor ditzake partikular el instrumento que deberá recoger las determinaciones detalladas referentes a la forma de distribución de los aprovechamientos, las condiciones particulares de la edificación, así como la descripción detallada de la urbanización y su forma de gestión.

**Decimo.-** Alegación número 10, R.E 2520, presentada por Dña. Mª Carmen y D. Jose Ramón Ruiz de Alegría Beltrán de Nanclares :

- Dentro del apartado II. REGIMEN URBANISTICO GENERAL, se corrige el texto referido a los parámetros de la edificación que se encontraban incompletas. Por lo que se estima la alegación, en el sentido de reconocer el error en la definición de los parámetros de la edificación.

- En lo que respecta al trazado del vial, el documento de Revisión de las Normas Subsidiarias del Planeamiento de Urretxu, recoge como una cuestión fundamental a resolver el problema de movilidad existente en el municipio en la actualidad.

  Con objeto de dotar a las áreas residenciales e industriales existentes, así como a los nuevos desarrollos propuestos, de una red viaria que garantice los desplazamientos internos del municipio, se hace necesaria la resolución de una estructura viaria mallada, para lo cual necesitamos ejecutar un vial paralelo al eje Iparragirre-Labeaga-Ipeñarrieta.

  La principal complejidad para el

batzuengan.

Horregatik, ez da bidezkoa aurkeztu den alegazioaren alderdi hau onartzea.

**Hamaikagarren.-** Iñaki Etxezarreta jaunak, Agustin Guerra jaunak, Jose Mª Ayastuy jaunak, Pello Rodriguez jaunak eta Jose Luis Urrate jaunak aurkeztutako 11 zk duen alegazioa, S.E. 2524, ontzat hartzea; hona hemen arrazoia:
Alegazioan A.I.U. "10-Pagoeta Hotela" dioenean A.I.U. "18-Urretxu Hotela" aipatzen dela ulertuta, eta "S.4 – Urretxu Hotela Plan Partziala" behin-betiko onartuta dagoenez eta bertan jasotako erabakiak baliozkotuta daudenez, ontzat hartzen da alegazioa, beti ere informazioa hartzerakoan akatsa izan dela aitortuz, eta ondorioz, behin-behineko onarpen dokumentuan eremu horren mugapen zehatza proposatzen da.

**Hamabigarren.-** Jon Eli Apaolaza Jauregi jaunak aurkeztutako 12 zk duen alegazioa, S.E. 2533, ez onartzea, izan ere "A.I.U. 1 – Sagastitxipi" gune industrial gisa kalifikatutako eremu bati dagokio, Kontsolidatutako Hiri-Lur gisa sailkatua.
Area honetan bidea eta arearako sarbideak hobetzea planteatzen da, Urretxuko sarbideko ardatzaren eta bidearen lotunean errotonda baten bitartez, orain dagoen industriari egokitzeko eta gaur egungo eraikuntzaren kontsolidaziorako.

Horregatik, azaldutakoaren arabera, eta eraikuntza haunditzea edo industriala ez den beste erabileraren

diseño de este nuevo vial radica en la difícil orografía del municipio, de todos conocida.

Después de barajar diferentes alternativas para el trazado del vial y valorando la dificultad de ejecución y el impacto económico y ambiental que estos pudieran ocasionar, se ha optado por el trazado propuesto.

El nuevo vial constituye una mejora a nivel municipal que inevitablemente puede ocasionar molestias a algunos particulares.
Por ello no procede asumir este aspecto de la alegación que se presenta.

**Undécimo.-** Estimar la alegación número 11, R.E 2524, presentada por D. Iñaki Etxezarreta, D. Agustín Guerra, D. Jose Mª Ayastuy, D. Pello Rodriguez, y D. José Luis Urrate, dado que :

Entendiendo que cuando la alegación habla de la A.I.U. "10-Hotel Pagoeta" se refiere a la A.I.U. "18-Hotel Urretxu" y dado que el "Plan Parcial S.4 – Hotel Urretxu" se encuentra aprobado definitivamente y se convalidan las determinaciones que en él se recogen, se estima la alegación, en el sentido de reconocer el error en la toma de información y, en conclusión, se propone la delimitación exacta de dicha área en el documento de aprobación provisional.

**Duodécimo.-** Desestimar la alegación número 12, R.E 2533, presentada por D. Jon Eli Apaolaza Jauregui, dado que el A.I.U. "1-Sagastitxipi" corresponde a un área calificada

bat sartzea aurreikusita ez dagoenez area honentzako ezarritako helburuen artean, ez da ontza hartzen aurkeztutako alegazioa.

**Hamahirugarren.-** Esteban Uribesalgo Aramendia jaunak aurkeztutako 13 zk duen alegazioa, S.E. 2534, ez onartzea, "A.I.U. 28 – Gerra Industriagunea" gune industrial gisa kalifikatutako eremu bati baitagokio, urbanizatzeko gai den lur zoru gisa sailkatua.

Eremuaren lur zorua urbanizatzeko gai den erabakitzeko, 1976ko Lurzoruaren Legearen 78 a) artikuluak, eta Lurzoruaren eta Balorazioen Erregimenari buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 8 a) artikuluak ezartzen dute hiri-lur gisa hartuko dela "eraldatuta dagoen lur zorua, gutxienez badaukalako ibilgailu-sarbidea, ur-hornidura, uren hustuketa eta argindar hornidura, edo hirigintza-legeriak ezartzen dituen moduan eta ezaugarriekin eraikuntzak berak kontsolidatuta dagoelako", ezaugarri horiek guztiak ez direlarik betetzen eremu zehatz honetan.

Bestalde, eremu hau "A.I.U. 1 – Sagastitxipi" eta "A.I.U. 2 – Matxinporta" delakoen ondoan kokatuta dago, biak ere erabilera industrial gisa kalifikatuak; beraz, kontsolidatu egingo litzateke udalerriko eremu horretarako aurreikusia dagoen kalifikazio industriala.

Azaldutako guztiagatik, ez da bidezko alegazio hau ontzat hartzea.

**Hamalaugarren.-** Jesukristoren

como zona industrial y clasificada como Suelo Urbano Consolidado.

En esta área se plantean la mejora del vial y de los accesos del área, mediante una rotonda en la unión del vial con el eje de acceso a Urretxu, con el objeto de adecuarse a la industria existente y el mantenimiento y consolidación de la edificación actual.

Por ello en base a lo expuesto y como la consideración de una ampliación constructiva o la incorporación de un uso diferente al industrial no se contempla dentro de los objetivos propuestos para el área, no se asume la alegación presentada.

**Decimotercera.-** Desestimar la alegación número 13, R.E 2534, presentada por D. Esteban Uribesalgo Aramendia, dado que el A.I.U. "28-Gerra Industrigunea" corresponde a un área calificada como zona industrial y clasificada como Suelo Apto para Urbanizar.

En cuanto a la determinación del ámbito como Suelo Apto para Urbanizar, el artículo 78 a) de la Ley del Suelo de 1976. y el artículo 8 a) de la Ley 6/1998, de 13 de Abril, sobre Régimen de Suelo y Valoraciones, establecen que tendrán la condición de suelo urbano "el suelo ya transformado por contar, como mínimo, con acceso rodado, abastecimiento de agua, evacuación de aguas y suministro de energía eléctrica o por estar consolidados por la edificación en la forma y con las características que establezca la legislación urbanística", características que no concurren en

Pasioko Kongregazioak aurkeztutako 14 zk duen alegazioa, S.E. 2537, onartzea, izan ere:

- Berrikuspen dokumentuari lehen onespena eman aurretik, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Jesukristoren Pasioko Kongregazioarekin, Jesusen Bihotzeko Probintzia, lehen onarpeneko agiriak jasotzen zuen moduan.
- Alegazio-epean, Aita Pasiotarren Elizaren gaur egungo egoera eta jatorrizkoa azterturik, kongregazio honek aldaketa bat proposatzen du euren jabetzapeko eliza ondoko eraikinean. Aipatutako alegazio horretan dokumentu grafiko berri bat aurkezten dute, non eliz ondoko eranskinaren antolamendua egiten den, eliza atzetik proposatua dagoen bidearen trazatuaren zati txiki bat aldatuz, eta hitzartuta zegoen eranskinaren azalera haundituz.
- Elizaren eranskinen antolamendu berria lehen proposatuta zegoen antolamendua baino hobea delakoan, hobekuntza dela iritzita, alegia, ontzat hartzen da alegazioa, eta beraz, zuzendu egiten da A.I.U. 19 “Pagoeta” delako fitxa behin-behineko onarpen dokumentuan, eta ondorioz, hitzarmen berri bat sinatuz, eta bertan eranskin berriari beren jabetzapeko lur zati guztiaren urbanizazioaren antolamendua eta eraikuntza gehitzen zaio, hitzarmen bidez Urretxuko Udalari lagatzen zaiona.

**Hamabosgarren.-** Urkain, S.L. enpresak aurkeztutako 14 zk duen alegazioa, S.E. 2542, onartzea, izan ere “A.I.U. 18 – Urretxu Hotela”

esta determinada área.

Por otro lado, este ámbito se encuentra situado junto a las A.I.U. “1-Sagastitxipi” y A.I.U. “2-Matxinporta”, ambas calificadas como de uso industrial, por lo que se consolidaría la calificación industrial prevista para esta zona del municipio.

Por todo lo expuesto no procede asumir la alegación que se presenta.

**Decimocuarto.-** Estimar la alegación número 14, R.E 2537, presentada por la Congregación de la Pasión de Jesucristo, por cuanto que:

- Con fecha anterior a la aprobación inicial del documento de Revisión, el Ayuntamiento suscribió un convenio con la Congregación de la Pasión de Jesucristo, Provincia del Sagrado Corazón de Jesús que el documento de aprobación inicial recogía.
- En el periodo de alegaciones, analizado el estado actual y originario de la Iglesia de los Pasionistas, la citada congregación plantea una modificación de la edificación anexa a la Iglesia de su propiedad. En la citada alegación presentan un documento gráfico que incluye la ordenación del cuerpo anexo a la iglesia, rectificando en una pequeña parte el trazado del vial propuesto tras la iglesia y aumentando la superficie del cuerpo anexo convenido.
- Entendiendo que la nueva ordenación de los cuerpos anexos a la Iglesia supone una mejora en la ordenación planteada con anterioridad, se asume la alegación y por tanto, se procede a

delakoan kokatuta dagoen Urretxu Hotelari izendatutako aprobetxamenduaren birbanaketa planteatzen baitu alegazioak, Plan Partzialean hotelerako aurreikusitako eraikuntzaren barruan aprobetxamendu osoa garatu ahal izateko.
Ontzat hartzen da alegazioa, izendatutako aprobetxamendu osoaren, 3.240 m2, garapena onartuz, beti ere Plan Partzialean proposatutako eta hotelerako eraikinaren lerrokadura eta perfila mantentzen baldin badira, eta etxola-bungalow delakoetarako aurreikusia dagoen eremuan beste inolako eraikin eraikitzen ez bada.

Ondorioz, A.I.U. “18 – Urretxu Hotela” delako fitxa egokitzen da.

**Hamaseigarren.-** Jesus Iturbe jaunak, Egumendi, S.L.ren izenean, Jose Maria Aztiria jaunak, Bengolea, S.L.ren izenean, Iñaki Gorostidi jaunak, Alcorta, Mendizabal y Cia enpresaren izenean, Esosi Santamaria andreak, Artukoluke, S.L.ren izenean, eta Alejandro Urkiola jaunak, Carrocerias Urkiola, S.L.ren izenean, aurkeztutako 16 zk duen alegazioa, S.E. 2543, ez onartzea, izan ere alegazioak A.I.U. 23 delakoari dagokion fitxaren alderdi batzuk aldatzea planteatzen baitu.
Alde horretatik, aipatu, eremu honen behin-betiko fitxak aldaketa batzuk jasotzen dituela, eta horien bitartez eremu osoaren garapenerako erregimen bakarra, Barne Berrikuntzarako Plan Berezi bat eta erabilera industriala soilik onartzea ezartzen delarik.

Alegazio honek eremua bi jarduketa-

la corrección de la ficha A.I.U.19 “Pagoeta” en el documento de aprobación provisional, suscribiendo un nuevo convenio en el que se suma al nuevo cuerpo anexo, la ordenación y ejecución de la urbanización de toda la parcela de su propiedad que por convenio, se cede al Ayuntamiento de Urretxu.

**Decimoquinto**.- Estimar la alegación número 14, R.E 2542, presentada por Urkain S.L., dado que la alegación plantea la redistribución del aprovechamiento asignado al Hotel Urretxu, situado en el A.I.U. “18-Hotel Urretxu”, para poder desarrollar todo el aprovechamiento dentro de la edificación destinada a Hotel en el Plan Parcial.

Se asume la alegación, permitiendo desarrollar el conjunto del aprovechamiento asignado, 3.240 m², dentro del edificio destinado a Hotel, siempre que se mantengan las alineaciones y el perfil del edificio destinado a Hotel propuesto en el Plan Parcial y que no se ejecute ninguna edificación en el ámbito destinado a las cabañas-bungalows.

En conclusión, se procede a la adaptación de la ficha A.I.U. “18-Hotel Urretxu”.

**Decimosexta.-** Desestimar la alegación número 16, R.E 2543, presentada por D. Jesus Iturbe en representación de Egumendi S.L., D. Jose Mª Aztiria en representación de Bengolea S.L, D. Iñaki Gorostidi en representación de Alcorta, Mendizabal y cia S.L, Dña. Esosi Santamaria en representación de Artuko Luke S.L., y

area ezberdinetan zatitzea proposatzen du, baina ez da onartzen proposamena, eremua birsortzeko oinarrizko ideiaren aurka doala uste delako.

Bestalde, Eraikuntza Unitate ezberdinen bidez (jabe bakoitzeko bat) eremu osoa garatzeko aukera proposatzen dute, eta horrela bakoitzak bere lur zatia eta modu indibidualizatuan urbanizazioaren zatia garatu ahal izatea. Azkenik, bideraezinezkotzat jotzen dute gaur egungo urbanizazio proposamena, horrek dakartzan gastuak direla medio. Alde horretatik, adierazi, nolanahi ere PERI delakoa izango dela beste zenbait xehetasunei buruzko erabakiak jasoko dituen tresna, hala nola aprobetxamenduen banaketaren modua, eraikuntzaren baldintza partikularrak, eta urbanizazioaren deskripzio zehaztua eta bere gestioa.

Azaldutako guztiarengatik, ez da onartzen aurkeztutako alegazioa.

**Hamazazpigarren.-** Erabaki honen edukia jakinarazi interesatuei.

**b) Behin-behineko onespena**

Alkate jaunak azaldu duenez une honetan proposatzen da AASSen berrikuspenaren behin-behineko onespenaren inguruko eztabaida.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Zabaleta andreak hartu du hitza, eta aditzera eman du lehenengo tamalgarria dela AASS hauek onartzeko modua, ahobatezkotasuna izatetik egoera honetara pasa delako. Jarraian esan du ez duela

D.Alejandro Urkiola en representación de Carrocerías Urkiola S.L. , por cuanto que la alegación plantea que se modifiquen algunos aspectos de la ficha correspondiente a la A.I.U 23.
Señalar a este respecto que la ficha definitiva del área recoge una serie de modificaciones por las que se establece un único régimen de desarrollo para el conjunto del área, un Plan Especial de Reforma Interior, y permitiéndose únicamente el uso industrial en la zona.

La alegación propone dividir el ámbito en dos áreas de intervención diferenciadas, propuesta que no se acepta por entender que va a en contra de la idea básica de regeneración del área.

Por otro lado plantean la posibilidad de desarrollar todo el área por medio de diferentes Unidades de Ejecución ( una por cada propietario) de forma que cada uno de ellos pudiera desarrollar su parcela y la parte de urbanización de forma individualizada. Por último definen como inviable la actual propuesta de urbanización por los gastos urbanizatorios que comporta. A este respecto decir que será en cualquier caso el PERI el instrumento que deberá recoger las determinaciones detalladas referentes a la forma de distribución de los aprovechamientos, las condiciones particulares de la edificación, así como una descripción de la urbanización y su forma de gestión.

Por todo lo expuesto no procede asumir la alegación que se presenta.

**Decimoséptima.-** Notificar a los interesados el contenido de este

alkaterik ezagutzen gobernuari eusten dion kohesioa hausteaz gain, oposizioa ere hautsi duenik. Aipatu du ez duela ukatu nahi prozesu honetan zailtasun haundiak izan direnik, baina bere ustez dena ez da baliokoa; bere iritziz, kontsentsurik ez badago, itxoin egin behar da. Esan du gainera behar diren zenbakiak lortu direla, baina gehiengo soziala galdu egin dela, eta uste du alkate jaunak ez duela hori egin herritarren onerako, baizik eta bere asmoa lortzeko; uste du gainera, behin-behinekotasunez egiten ari dela, herriko agintaritza berriak gehiengo sozial hori lortu beharko duelako. Era berean esan du bere burua bakarrik ordezkatzen duen zinegotzi baten botoa daukala; tamalgarritzat jotzen du gaur gertatuko dena, eta ez zuen uste gertatuko zenik, izan ere, lehen esan bezala, bere iritziz itxoin egin behar da.

Pereira andreak eskatu du hitza, eta berak azaldu duenez AASS hauen aldeko botoa emango du, ez inori mesede egiteko, baizik eta uste duelako herriaren onerako direla; izan ere beharrezkoa da Irimo-Ipeñarrieta lerroa sustatzea; etxebizitzak egingo dira, horietatik %50 babesekoak, PSE-EE alderdiak eskatzen ohi duena hain zuzen ere, eta euren ustez berrikuspen hau ona da Ikastolarentzako.

Agirre andreak eskatu du hitza, eta adierazi duenez, Zabaleta andreak esan duen bezala, ez dago gehiengo sozialik.
Esan du gainera, 2005eko abenduan planteatu zituela bere kezkak, izan ere lehen onespenaren ondoren esan zuten EAJk aldeko botoa ematen

acuerdo.

**b) Aprobación provisional**

El Sr. Alcalde expone que es en este momento cuando se plantea el debate en torno a la aprobación provisional de la revisión de NN.SS..

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra la Sra. Zabaleta quien manifiesta que lo primero es lamentar la forma de aprobar estas NN.SS, dado que se ha pasado de tener unanimidad a esta situación. Sigue diciendo que no conoce ningún alcalde que además de romper la cohesión del gobierno que le sustenta, haya roto también la oposición. Expone que no niega que en este proceso haya habido muchas dificultades, pero entiende que no todo es válido, por lo que a su juicio si no se dispone de los consensos se espera. Añade que se han conseguido los números necesarios pero se ha perdido la mayoría social, pensando que el Sr. Alcalde no lo ha hecho en beneficio de sus ciudadanos sino para conseguir su propósito, entendiendo además que se está haciendo con provisionalidad porque el nuevo gobierno local tendrá que conseguir esa mayoría social. Asimismo dice que se tiene el voto de un concejal que se representa exclusivamente a sí mismo, lamenta lo que hoy va a pasar pensando que esto no iba a ocurrir dado que, reiterando lo anterior, a su juicio se espera.

Pide la palabra la Sra.Pereira, quien expone que el P.P. va a votar a favor de estas NN.SS. , no por hacer un favor a nadie sino porque entiende

zuela, baina erne egonda aurkez zitezkeen alegazioekin, eta beraiek horixe egin dute azken finean. Esan du gainera 2006ko uztailean, alderdiaren herri batzarra egin ondoren, idatzi bat aurkeztu zutela (irakurri egin du), eta bertan alegazioak eta fitxak eskatu zituztela, une honetan dokumentazio hori osatu gabe daukalarik.

Urrestarazu jaunak hitza eskatu eta aditzera eman du tamalgarria iruditzen zaiola alkate jaunaren gestioa eta bilakaera, ahaztu gabe bertan behera geratu direla deituta zeuden bi osoko bilkura, zalantzan jartzen duelarik bertan behera uzte hori legezkoa ote den. Esan du gainera obsesio bihurtu dela gaia, eta AASS hauek onartzeko behar den gehiengoa lortzeko PP izango dute ondoan, Hirigintza Batzordeetara sekula etorri ez den talde politikoa, eta gainera Herribideren zinegotzi kargua betetzen ari den baten botoarekin. Azkenik esan du bere iritziz enpresen alde jokatzen ari dela, eta ez herriaren alde.

Molina jaunak eskatu du hitza, eta aditzera eman du zinegotzi kargua hartu zuenean bere alderdiak, PSE-EEk, agindu zion lanetako bat Planeamenduko AASS berriak erreibindikatzea izan zela; hori horrela, PSE-EEren izenean lan egin du osoko bilkura honetara aurkeztu diren AASSen berrikuspen hau sortzen. Bere garaian AASS hauen aldeko jarrera izan zuen, ona iruditu zitzaolako bide berria, bere ustez orain bete-betea dagoen ardatz bakarrari alternatiba emango diolako, baita babeseko etxebizitzak, baita Ikastola berriaren instalazioa ere, eta

que las mismas van a favor del municipio, ya que es necesario relanzar la linea de Irimo-Ipeñarrieta; se van a hacer viviendas, el 50% protegidas que es lo que el PSE-EE suele demandar; y entienden que esta revisión es buena para la Ikastola.

Pide la palabra la Sra. Agirre, para decir, que tal y como ya ha expuesto la Sra. Zabaleta, no se cuenta con la mayoría social.
Sigue diciendo que en diciembre de 2005 ya planteó sus preocupaciones, puesto que tras la aprobación inicial ya manifestaron , que el PNV daba su voto a favor pero estando atentos a las alegaciones que se pudieran presentar, que es en definitiva lo que han hecho. Añade que en julio 2006, tras la asamblea de su junta local, se presentó un escrito que lee, en el que se piden las alegaciones y fichas, no teniendo en este momento esa documentación completa.

El sr.Urrestarazu pide la palabra y dice que le parece lamentable la gestión y evolución del Sr.Alcalde, sin olvidar que han sido desconvocadas dos sesiones plenarias, dudando del ajuste a derechos de estas de estas desconvocatorias. Añade que el asunto se ha vuelto obsesión, por lo que para lograr la mayoría necesaria van a aprobar estas NN.SS con el P.P, grupo político que nunca ha acudido a las Comisiones de Urbanismo, y además con el voto de un concejal que está ocupando la concejalía de Herribide. Por último indica que a su juicio se está actuando a favor de las empresas y no del municipio.

Pide la palabra el Sr. Molina, diciendo

orain bere jarrerari eutsi egiten dio. Gogora ekarri du 2006ko apirilaren 23an Bitartean elkarteak talde politiko guztiei dei egin ziela, eta une hartan, PSE-EE alderdiaren ordezkari gisa, aditzera eman zuen Irimo-Ipeñarrieta lerroa industriarako geratzen baldin bazen, bere talde politikoak dokumentuaren aldeko botoa emango zuela, hain zuzen ere une honetan onartzeko aurkezten den agiria, Irimo-Ipeñarrieta lerroa industrial gisa bakarrik. Horregatik guztiagatik, baieztatu egin du bere jarrera eta AASSen berrikuspenaren aldeko botoa emango du.

Esan du gainera, hainbat arrazoi direla medio, ez daki ulertzen duen, baina behintzat ez da iritzi berekoa, Urretxuren garapenerako oztopo baitira, bere alderdiak, PSE-EEk, AASSen berrikuspenaren alde ez egitea proposatu zuen, eta horregatik bere desadostasuna agertu zion alderdiari eta berrikuspenaren aldeko jarrera; esan du gainera “transfuga” deitu dionak esan diezaiola zein alderditara joan den. Azkenik esan nahi du prozesu honetan ikusi duela ez dagoela interesik Urretxu garatzeko, eta horrela oztopo asko gainditu ditugu; gogora ekarri ditu Urola ibaiko zubiaren pilastrak, Katearen instalazioa gure herrian, eta Areizaga-Kalebarren plazako konponketa lanak; azken gai honi buruz, berak pertsonalki entzun du eraikuntza bateratua 2006an egingo zela, baina azkenean Urretxuk egin beharko du konponketa lana bere udalerriaren barruan.

Eta bere jardunaldiari amaiera emateko, bere satisfazioa azaldu du azkenean desblokeatu egin delako

que cuando accedió a su cargo de concejal uno de los trabajos que le encargó su partido, PSE-EE, fue reivindicar unas nuevas NN.SS de planeamiento, y así en representación del PSE-EE ha trabajado en la gestación de esta revisión de NN.SS cuya aprobación provisional se presenta en este pleno. En su momento se pronunció a favor de estas NN.SS, por entender bueno tanto el nuevo viario que, a su juicio, servirá de alternativa al único y saturado eje existente, como las viviendas protegidas, como la nueva instalación de la Ikastola la nueva instalación, y ahora, siendo consecuente con su postura, la mantiene. Recuerda que el 23 de abril de 2006, Bitartean convocó a todos los grupos políticos, y en aquel momento, representando al PSE-EE, manifestó que si la línea Irimo-Ipeñarrieta quedaba como industrial, su grupo político otorgaría su voto a favor del documento, que es el que se presenta en este momento a aprobación, con la línea Irimo – Ipeñarrieta como industrial exclusivamente. Por ello se ratifica en su postura y votará a favor esta revisión de NN.SS

Sigue diciendo que, por diversas razones que no sabe si llega a comprender pero que no comparte, porque suponen un obstáculo para el desarrollo de Urretxu, su partido, PSE-EE planteó no mostrarse a favor de la revisión de NN.SS, cuestión por la que planteó a su partido su disconformidad y su postura a favor de la revisión, y dice a quien le tacha de “transfuga” que le digan a qué otro partido político se ha ido. Por último quiere decir que en este proceso ha observado que no existe

AASSen berrikuspenak izan duen etenaldia, eta horren aldeko jarrera agertu du.

Errazu jaunak eskatu du hitza, eta Molina jaunari erantzunez esan du ez dela bere gustukoa agian eman den irudia, Urretxuren garapena geldi egotearena, baina ez dela ahaztu behar ezin dela bakarrik batzuen alde jokatu, baizik eta guztien adostasuna behar dela.

Alkate jaunak Zabaleta andrearen hitzei erantzunez aditzera eman du dezepzioa hartu duela aipatutako zinegotzi horrek udaletxe honetan izan duen jokabidearekin; etika politikari buruzko eta Urretxu osoaren aldeko lanari buruzko lezioak ematen ari dela, denok dakigunean Zabaleta andrea bere alderdiko erruak ordaintzera etorri dela udalerri honetara, Urretxu batere inporta ez zaiolarik, eta bere lana Molina jaunak egin diolarik, eta horri esanez une honetan bere burua ordezkatzen duela. Jarraian esan du egia dela ahobatezkotasuna zegoela, eta aipatu duela noiz hautsi zen hura; horregatik, Ipeñarrieta-Irimo eremutik erabilera tertziarioa desagertuta, ustez zuen bazegoela adostasuna berriz ere. Esan du gainera une honetan PSE-EE alderdiak oraindik ez duela azaldu dokumentuari emandako ezezkoa. Gehiengo sozialik ez dagoela esanez egin duen aipamenari dagokionez, aipatu du bere ustez EAJren errredituak deskontatzen dituelako esan duela hori, EArekin koalizioa osatzen duen alderdia. Dena den aditzera eman du bere ustez garrantzitsua dela herriarentzako ontzat jotzen dena aurrera eramatea, eta ezin dela

interés en que Urretxu se desarrolle, y así hemos salvado muchos escollos, recordando la reparación de las pilastras del puente del río Urola, la instalación de Katea en nuestro municipio, y la reparación de la plaza Areizaga-Kalebarren, asunto este último respecto del cual ha oido personalmente que su ejecución conjunta se haría en el 2006, cuando al final va a tener que ser Urretxu quien proceda a la reparación dentro de su término municipal.
Finaliza su intervención manifestando su satisfacción porque al final se ha desbloqueado la paralización que la revisión de NN. SS ha sufrido, y muestra su postura favorable a la misma.

Pide la palabra el Sr.Errazu quien respondiendo al Sr.Molina dice que no es de su gusto la posible imagen de que el desarrollo de Urretxu esté parado, pero que no hay que olvidar que no se puede actuar solo a favor de unos sino que es necesario el consenso de todos.

El sr.Alcalde respondiendo a la intervención de la Sra. Zabaleta, manifiesta que se ha sentido decepcionado por la actuación mantenida en este Ayuntamiento por la citada sra. Concejala que se está dedicando a dar lecciones de ética polìtica y trabajo a favor del conjunto de Urretxu, cuando todos conocemos que la Sra. Zabaleta ha venido a este municipio para purgar sus culpas de partido, no importándole Urretxu nada en absoluto, y habiéndole realizado su trabajo el Sr.Molina a quien en este momento dice que se representa a sí mismo. Sigue diciendo que es cierto que existía una unanimidad, habiendo

prozesu osoa geratu kontsentsurik ez dagoelako. Gainera gogora ekarri du bere koalizioak egindako hauteskunde kanpainan konpromiso bat hartu zutela, AASSen berrikuspena egitea, eta bere ustez gaur beteko da hori.

Alkate jaunak bere jardunarekin jarraitu du, eta eskerrak eman dizkio Pereira andreari izan duen koherentziagatik; izan ere, kultur etxean egindako bileran adierazi zuenez, Ipeñarrieta-Irimo eremua industria-rako soilik mantenduz, bere alderdiak, PPk, baiezko botoa emango zuen.

Agirre andreak esandakoari dagokionez, alkate jaunak gogora ekarri du EAJren proposamenetako bat zela 23. area industriarako bakarrik izatea, eta horrelaxe gertatu da gaur onartzeko aurkezten den dokumentuan; gogoan du baita ere Gasarekiko eta Leizarrenekiko akordioak eskatu zizkiotela, eta uste du posta elektronikoz bidali zituela; beraz, ez du bere jarrera ulertzen.

Urrestarazu jaunak esandakoari dagokionez, aditzera eman dio azaldu zuela osoko bilkurak bertan behera uztearen arrazoia, eta ados dagoela berarekin tamalgarria dela esaterakoan, baina aipatu du benetan eragiketa matematikoak bilatzen ari zela. Esan du gainera Zabaleta andreak bi aldiz adierazi ziola bere alderdi politikoak, PSE-EEk, dokumentuaren aldeko botoa emango zuela, gero kontrakoa gertatuz, Molina jaunak esandakoaren arabera PSE-EEko herriko batzarrak, dena delakoagatik, ez zielako baiezko botoa ematen

indicado ya cuándo se rompió, por ello desapareciendo el uso terciario del área Ipeñarrieta-Irimo entendía que volvía existir consenso. Añade que en este momento, el PSE-EE todavía no ha explicado su negativa otorgada al documento. Respecto a la alusión de que no hay mayoría social, dice que entiende que lo hace porque descuenta los réditos del PNV, partido que forma con EA coalición. No obstante señala que lo que a su juicio es importante es llevar adelante lo que entiende bueno para el municipio, no pudiendo parar todo el proceso porque no existe consenso. Recuerda además que en la campaña electoral efectuada por su coalición se hizo un compromiso, el de proceder a la revisión de las NN.SS de planeamiento, que entiende que hoy se va a ver cumplido.

Sigue la intervención del Sr.Alcalde que procede a agradecer a la concejal Sra. Pereira el haber mantenido su coherencia, tras haber manifestado en la reunión mantenida en la Casa de Cultura que manteniéndose el área Ipeñarrieta-Irimo exclusivamente industrial, el voto de su partido, P.P, sería afirmativo.

En cuanto a la intervención realizada por la Sra. Agirre, el Sr.Alcalde recuerda que una de las propuestas del PNV era que el área 23 fuera solo industrial, así ha resultado en el documento que hoy se presenta para aprobación, y también recuerda que se le solicitó los acuerdos con Gasa y Leizarren, los cuales cree que le fueron enviados por correo electrónico por lo que no entiende su postura.

Respecto a lo manifestado por el Sr.

utzi.

Molina jaunari dagokionez, alkate jaunak bere lana eta laguntza eskertu dio, eta argi utzi nahi izan du bere botoa, udalkide izanik, gainontzekoenak adina balio duela.

Zabaleta andreak hitza eskatu, eta alkate jaunari eskatu dio ez dezala bere alderdiaren erabakiei buruz hitz egin, ez baititu erabaki horiek ezagutzen. Esan dio gainera poztu egiten dela huts egin diola uste badu, bera ez delako alkatea bezalakoa, eta berriro dio, kontsentsua haustea eta berak ordezkatzen duen talde politikoa ere haustea lortu duela.

Agirre andreak hitza eskatu eta aditzera eman du bere ustez denak ari direla herriaren alde lanean, eta zehazki agintaritza taldean zeuden diferentziak konpontzeko lan egin du EAJk; Sarralde, Spri, Ikastola aipatu ditu, eta bere alderdiaren interes industriala soberan erakutsia dagoela euren jardunetan.

Urrestarazu jaunak hitza eskatu eta AASS hauekin ez dela etxebizitzaren arazoa konponduko esan du; bere iritziz ez dira formula zaharkituak erabili behar horretarako, izan ere formula horiekin oraindik badaude etxebizitza eskatzen dutenak eta ezin dutenak horietan sartu, ezin dituztelako eskatzen diren baldintzak bete.

Molina jaunak hitza eskatu eta Urrestarazu jaunari erantzun dio jakina dela dokumentuan aurreikusi-takoarekin ez dela arazo osoa konponduko, baina ez dela ahaztu

Urrestarazu le dice que ya le explicó la razón de las desconvocatorias del Pleno, estando con él de acuerdo en que es lamentable, pero señala que efectivamente estaba buscando operaciones aritméticas. Sigue diciendo que la Sra. Zabaleta le manifestó en dos ocasiones que su partido político, PSE-EE, iba a votar a favor del documento, para despues resultar lo contrario, según lo dicho por el Sr.Molina, porque la junta local del PSE-EE, por las razones que fueran no les permitía votar afirmativamente.

En cuanto al Sr.Molina, el Sr.Alcalde le agradece su trabajo y colaboración, aclarando que su voto, como edil que es, es tan válido como el de resto de los corporativos.

La sra. Zabaleta pide la palabra y requiere al Sr. Alcalde que se abstenga de hablar de decisiones de su partido, decisiones que no conoce. Añade que le alegra que le haya defraudado, porque ella no es como el Sr. Alcalde, reiterando que lo que ha conseguido es romper el consenso y también romper el grupo político al que ella representa.

La Sra. Agirre pide la palabra para manifestar que cree que en interés del pueblo estaban trabajando todos, y que en concreto el PNV ha trabajado para intentar solucionar las diferencias existentes en el equipo de gobierno, citando Sarralde, Spri, Ikastola, señalando que el interés industrial de su partido está más que demostrado con sus actuaciones.

El Sr. Urrestarazu pide la palabra y expone que con estas NN.SS no se

behar bidearen hasiera dela. AASSen berrikuspen dokumentuan jasotako solairuarteko lokalen ordenantzari dagokionez, lehen onespeneko agirian jasotzen zen bezala uztea eskatu du, EAJk aurkeztutako proposamena onartu beharrean.

Errazu jaunak hitza eskatu eta adierazi du orain emango duen botoak ez duela esan nahi bere batzordeko gaiak aurrera ateratzeko lanean jarraituko ez duenik.

Alkate jaunak Zabaleta andreari erantzun dio bere alderdiaren barruko kontuei buruz hitz egin duela Molina jaunaren bitartez jakin duelako, eta honek bizi behar izan duen egoera. Zinegotzi andreak aipatu duen lotsari dagokionez, esan du bai benetan lotsa izan behar dela, baina ez ez diezaiola eskatu bakarrik alkatearen alderdiari, baizik eta guztiei, PSE-EE alderdia barne.

Agirre andreak adierazitakoari dagokionez, alkate jaunak aditzera eman du EAJren jarrera gure udalerriaz kanpoko arrazoiengatik izan dela. Esan du gainera, Sprilurrek Agirre andrearen deiari erantzun ziola, eta egin ziren bilera biak negargarriak izan zirela. Lehenengo bileran, erakundeko zuzendariak argi uzti zuen bere interbentzioa EAJk egindako eskaerari erantzuten diola, baina gai zaila ikusten duela. Eta bigarren bileran, Sprilurreko arduradun nagusia bertan izan gabe egin zena, egindako planteamendua prezioak igotzearena izan zen. Aditzera eman du, nolanahi ere saiatuko dela Irimo-Ipeñarrieta industrial gisara

va a solucionar el problema de la vivienda, entendiendo que no se tiene que seguir las viejas fórmulas para ello, porque con estas todavía hay demandantes de vivienda que no pueden acceder a las mismas por no cumplir los requisitos que se vienen exigiendo.

El sr, Molina pide la palabra para responder al Sr. Urrestarazu que ya se sabe que con lo contemplado en el documento no se va a solucionar todo el problema, pero que no hay que olvidar que es un inicio en el camino. En cuanto a la ordenanza de entreplantas recogida en el documento de revisión de NN.SS. solicita que la misma quede tal y como se recogía en el documento de aprobación inicial en lugar de aceptar la propuesta presentada por el PNV.

El Sr. Errazu pide la palabra para decir que el carácter del voto que va a otorgar no quiere decir que no va a seguir trabajando para llevar adelante los temas de su comisión.

El Sr. Alcalde en respuesta a la Sra. Zabaleta manifiesta que los entresijos del partido de ésta última, es un tema del que habla por que ha tenido conocimiento del mismo a través del Sr. Molina y la situación que ha tenido que vivir. En cuanto al pudor a que hace referencia la sra edil, dice que efectivamente hay que tener pudor, pero que no solamente se lo pida al partido que él lidera, sino a todos incluido el suyo propio, PSE-EE.

Respecto a la intervención de la Sra. Agirre, el Sr. Alcalde manifiesta que la postura del PNV obedece a razones ajenas a nuestro propio municipio.

mantentzen, eta Sprik parte hartzen.

Urrestarazu jaunak adierazitakoari dagokionez, aipatu du egia dela AASSen berrikuspenak duen planteamenduarekin ez dela etxebizitzaren arazoa konponduko, baina urratsak ematen direla arazo hori arintzeko.

Molina jaunaren eskaerari dagokionez, solairuarteko lokalena, aditzera eman du, horien kopurua ikusita, beti eutsi izan duela EA alderdiak ez zuela adostutako edozein proposamen eztabaidan jarriko, baina nolanahi ere nahiago du ordenantza lehen onarpeneko dokumentuan agertzen den bezala mantentzea, izan ere bere iritziz solairuarteko lokalak lehentasunez nahiz atzera erosteko erregimenaren menpe egonda, geldiarazi egiten da espekulazioa.

Perez jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du solairuarteko lokalei dagokienez berak ohartarazi zuela. Irimo-Ipeñarrieta lerroari dagokionez aipatu du, gaiak idatziz nahi dituela azpimarratuz, bi pastilako area zela garapenean oztoporik ez izateko, hasiera batean ez zirudien garrantzirik zeukanik, baina gertatu da bata bestearen kaltean zihoala. Gainera erabilera tertziarioa onartzeko ideia proposatzen zen, orain erabilera industriala bakarrik proposatzen dela dirudi; beraz galdetzen du ea non agertzen den hori eta betiko izan dadila horrela. Esan du gainera, bere ustez, erabilera tertziariorako itxaropenak ematean, Udalak berak eragin du gune hori industrial gisa garatu ez izana, eta alkate jaunari

Añade que Sprilur acude, efectivamente, a llamada de la Sra. Agirre, siendo las dos reuniones que se mantuvieron lamentables. En una primera reunión el director del ente aclara que su intervención se debe a la petición que en este sentido le ha hecho el PNV, pero que entiende el asunto difícil. Y en la segunda reunión, a la que no ni siquiera acude el máximo responsable de Sprilur, el planteamiento que realiza es el aumento de precios. Señala que, no obstante va a intentar que Irimo-Ipeñarrieta se mantenga como industrial y la actuación de la Spri.

Respecto a lo señalado por el Sr.Urrestarazu indica que es verdad que con el planteamiento de la revisión de NN.SS no se soluciona el problema de la vivienda, pero que sí se dan pasos para intentar paliar el mismo.

En cuanto a la petición del Sr. Molina relativa a las entreplantas, indica que siempre ha mantenido que a la vista del numero de las mismas, EA no iba a discutir cualquier propuesta consensuada que en su caso se presentara, pero que no obstante es también mas partidario de mantener la ordenanza tal y como aparece en el documento de aprobación inicial, y ello porque entiende que sometiendo las entreplantas al régimen de tanteo y retracto se frena la posible especulación

Pide la palabra el Sr. Pérez para decir que respecto a las entreplantas el ya avisó. En cuanto a la línea Irimo-Ipeñarrieta señala, ahondando en que quiere los temas por escrito, que era un área con dos pastillas para no

bota dio horren errua.

Aurreko akusazio horren aurrean, alkate jaunak Perez jaunari esan dio batzorde bat ere deitu ez duen batzordeburu izanik, ea nola ausartzen den besteen lana juzgatzen. Esan dio gainera area hori garatu ezinaren errua botatzen dionean, oroimen txarrarekin ari zaiola; alde horretatik gogora ekarri dio Irimo ez zela AASSen berrikuspen honen helburu, baizik eta Irimok herritik alde egin eta gero sartu zela. Hasiera batean, pabeiloia zati txikietan banatzea izan zen jabeen planteamendua; hargatik gaia aztertzeko esan zitzaien, bidean kolapsorik gerta ez zedin; horretarako, fatxadan 17 metroko atzeraketa egitea aurreikusi zen, barruko bide bat sortzeko, eta XIX. mendeaz geroztik dauden aprobetxamenduak mantenduz, bere ustez mantendu edo indemnizatu egin behar baitira. Horixe da arrazoia eremua erabilera tertziarioari ireki izanarena, eta ez Eroski gune horretan interesatua egon izana.
Era berean esan dio alkate den aldetik lan egingo duela Sprilurrek proposamen serioak egin ditzan eremu hori izaera industrialarekin gara dadin, eta baita ere Perez jaunak bere jardunean ahaztu duen zerbait gogorazi dio, hau da, AASSen berrikuspen honetan eskualdeko erabilera industrialerako lurrak ere erretserbatu direla, Spri-ri jakinarazitako erretserbak, eta kasu batean Sprik esan du garapena udalarena izan dadila, eta Deskargako guneari dagokionez, posibilitatea aztertuko dela; beraz, ez bada eskualdeko garapena lortzen, bere ustez udal mailan garatu

interferir su desarrollo, cuestión que inicialmente parecía no tener importancia, pero resultando que una iba en detrimento de la otra. Además se planteaba la idea de permitir el uso terciario, ahora parece plantearse solamente el uso industrial, por lo que pregunta donde se refleja este extremo y que sea así “a perpetuo”. Añade que a su juicio al haber dado expectativas, con la posibilidad de uso terciario, desde el propio Ayuntamiento se ha ocasionado que la zona no se desarrolle como industrial, culpando de esto al Sr. Alcalde.

El Sr. Alcalde ante la anterior acusación, le dice al Sr. Pérez que cómo él, presidente de Comisión que no ha convocado comisión alguna, se atreve a enjuiciar el trabajo de los demás. Además sigue diciéndole que cuando le culpa de que ese área no se puede desarrollar, lo está haciendo con una mala memoria, y así le recuerda que Irimo no era un objetivo de esta revisión de NN.SS, sino que se introdujo después de que Irimo se fuera del municipio. En principio el planteamiento de sus propietarios fue dividir el pabellón en lotes pequeños, por lo que se les indicó que estudiaran el asunto para evitar un posible colapso viario, contemplando un retranqueo de 17 metros en la fachada al objeto de crear un viario interno y manteniendo los aprovechamientos existentes desde el siglo XIX, que entiende se tienen que mantener o indemnizar. Esta es la razón de abrir la zona al uso terciario, no el que Eroski estuviera interesado en la zona.
Asimismo le dice que como Alcalde va a trabajar para que Sprilur presente

beharko da hori ere.

Perez jaunak aditzera eman du ez duela batzorde-deialdirik egin Katearen gaian ez zelako bera kontuan izan, eta ondoren galdetu du ea zer tratamendu emango zaion A-15 areako C orubeko solairuarteko lokalari.

Alkate jaunak adierazi du ez duela gogoratzen Perez jaunak aipatu duen ordezkatzen hori, eta C orubeko solairuartekoari dagokionez, esan du lehen onespeneko dokumentuan jasota dagoen tratamendu bera dela, 2005eko uztailaren 11n aho batez onartu zen dokumentukoa, alegia.

Eztabaida amaituta, botoetara eramanda; aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegotziek (7 boto), eta aurkako botoa Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto); horrenbestez, TAOL legearen 47. Artikuluan eskatzen den erabateko gehiengoarekin, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Urretxuko Planeamen-duko AASSen berrikuspen dokumentuari behin-behineko onespena ematea.

**Bigarren.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea dokumentu osoa, espediente administratiboa-rekin batera, hala badagokio, behin-betiko onespena eman dezan.

**Hirugarren.-** Alkate jaunari baimena ematea behar diren agiriak sina ditzan.

propuestas serias encaminadas a desarrollar el área con carácter industrial, y también le recuerda algo que el Sr.Pérez en su alocución ha olvidado, y es que en esta revisión de NN.SS también se reservan suelos para uso industrial comarcal, reservas que han sido trasladadas a Spri quien ha dicho, en el caso de una zona, que el desarrollo sea municipal, y en el caso de la zona de Deskarga que se estudiará la posibilidad, por lo que si no se consigue un desarrollo comarcal, entiende que tendrá que ser también desarrollada a nivel municipal.

El sr. Pérez indica que no ha convocado comisiones porque en el asunto Katea no se le tuvo en cuenta, y pregunta que tratamiento va a tener la entreplanta del solar C del Area A-15.

El sr. Alcalde manifiesta no recordar el suplante al que hace referencia el Sr.Pérez, y en cuanto a la entreplanta del solar C indica que su tratamiento es exactamente el mismo que en el documento de aprobación inicial, aprobado por unanimidad el 11 de julio de 2005.

Finalizado el debate se somete el asunto a votación, y con los votos a favor del Sr. Alcalde, y los concejales, Sr. Zufiaurre, Sr. Otermin, Sr. Téllez, Sr. Aztiria, Sr. Molina y Sra. Pereira ( 7 votos), y los votos en contra de los concejales Sra Agirre, Sr. Errazu, Sr. Pérez, Sra. Zabaleta, y Sr. Toral ( 5 votos), por tanto con la mayoría absoluta exigida en el art. 47 de la LRBRL ,se acuerda:

**Primero.-** Aprobar provisionalmente el

**9.- Kreditu aldaketarako espedienteak:**
**a) 2. Zk., kreditu-transferentzien modalitatea: berri ematea**

Ogasun eta Kontu berezitarako batzorde buru Tellez jaunak Alkatetzaren Ebazpenaren berri eman du, hain zuzen ere kreditu-transferentzien modalitatean 2. zk. duen kreditu aldaketarako espedientea onartzen duen ebazpena, hitzez hitz honako hau:

*Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten dion eta 2 zk. duen kreditu aldaketaren espedientea ikusirik, aurrekontuko gastuen diru partiden arteko transferentzia bidez egina*

*Kontuhartzaile andreak egindako txostenaren arabera, aipatutako espedientea araudi aplikagarriari egokituta dago, zehazki Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzko Foru Arauaren 29. Artikuluak eta Toki Erakundeen Aurrekontu Araudia onartzen duen Foru Dekretuaren 34. Artikuluak ezarritako baldintzei egokituta; hori horrela, eta dagokion batzorde informatiboak aldeko iritzia eta onartzearen aldeko proposamena egin ondoren*

*Goian aipatutako artikuluek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz, honen bitartez*

***EBAZTEN DUT***

***Lehenengo.-*** *Proposamenenean zerrendatzen diren gastuen diru partiden arteko transferentzia bidez egindako kreditu aldaketarako espedientea onartzea, hain zuzen ere*

documento de revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu.

**Segundo.-** Remitir el documento junto con el expediente administrativo completo a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que otorgue, en su caso, la oportuna aprobación definitiva

**Tercero.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos fueran precisos.

**9.- Expedientes modificación créditos:**
**a) nº 2, modalidad transferencias de créditos: dación cuenta**

Por el Sr.Téllez, Presidente de la Comisión de Hacienda y Especial de Cuentas se da cuenta de la Resolución de Alcaldía por la que se ha aprobado el expediente de modificación de créditos nº 2 en su modalidad de transferencias de créditos, cuyo tenor literal es el siguiente:

*Visto el expediente de modificación de créditos mediante transferencias entre partidas presupuestarias de gastos identificado con el nº 2 que afecta el Presupuesto vigente de este Ayuntamiento.*

*Visto que según el informe emitido por la sra. Interventora, dicho expediente esta ajustado a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 29 de la N.F Presupuestaria de las Entidades Locales, y 34 del Decreto Foral por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales, y habiéndose dictaminado favorablemente y formulado propuesta de aprobación por la Comisión informativa correspondiente.*

*Udal honen Aurrekontuari dagokiona, eta kapituluka ondorengo laburpenean agertzen denaren arabera*

*En el ejercicio de competencias que me atribuyen los artículos anteriormente referidos, por la presente*

***RESUELVO:***

***Primero.-*** *Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante transferencias entre partidas presupuestarias de gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por capítulos*

*GASTOS CUYOS CREDITOS SE TRANSFIEREN ( BAJAS)*
*TRANSFERITUTAKO KREDITUAK BILTZEN DITUZTEN GASTUAK (BAJAK)*

| Capítulos Atalak | Denominación Izendapena | Crédito inicial Hasierako kreditua | Minoración Gutxipena | Crédito resultante Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| I | Personal | 971.552,96 | 235.310,67 | 736.242,29 |
| II | Gastos bienes corrientes | 1.478.686,15 | 143.677,79 | 1.335.008,36 |
| | **TOTAL** | **2.450.239,11** | **378.988,46** | **2.071.250,65** |

*GASTOS CUYOS CREDITOS SE INCREMENTAN (ALTAS)*
*GEHITUTAKO KREDITUAK BLTZEN DITUZTEN GASTUAK (ALTAK)*

| Capítulos Atalak | Denominación Izendapena | Crédito inicial Hasierako kreditua | Aumento Gehikuntza | Crédito resultante Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| I | Personal | 736.242,29 | 370.922,18 | 1.107.164,47 |
| IIVI | Gastos biens corrientes | 1.335.008,36 | 8.066,28 | 1.343.074,64 |
| | **TOTAL** | **2.071.250,65** | **378.988,46** | **2.450,239,11** |

*Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiteril gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako*

***Segundo.-*** *Siendo este acto firme sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de Intervención de*

*kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalakko ondorioen isaldatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.*

Udalbatzarra jakinean geratzen da.

**a) 3 zk. Kreditu gehigarriak: onarpena**

Alkate jaunak Ogasun eta Kontu berezitarako batzorde buru Tellez jaunari eman dio hitza, eta honek Udal honetako aurrekontuan eragiten duten KREDITU GEHIGARRIEN bidezko 2006/03 Kreditu Aldaketarako espedientearen berri eman du; Kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, eta berak adierazi duenez aipatutako espedientea bat dator indarrean dagoen araudiarekin, zehatz-mehatz esanda Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34 artikuluan ezarritako baldintza eta eginbideen arabera, eta baita ere Toki Erakundeen Aurrekontuen Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 40. artikulua.

Eztabaida amaiturik, eta Ogasun eta Gobernu Batzordeak horren alde eman duen irizpena kontuan izanik, gaia botoetara eraman da, eta alkate jaunak, eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegotziek (7 boto) baiezko botoa eman dutelarik, eta Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto) aurkako botoa emanda, honako erabaki hau hartu da:

*Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos sin perjucio de dar cuenta de este actal al Ayuntamiento Pleno en la primera sesión que celebre.*

La Corporación se da por enterada.

**b) Nº 3 modalidad créditos adicionales: Aprobación**

El Sr. Alcalde da la palabra al Sr. Téllez, Presidente de la Comisión de Hacienda y Especial de Cuentas, quien procede a dar cuenta del expediente de Modificación de Créditos nº 03/2006 mediante CREDITOS ADICIONALES que afecta al Presupuesto de este Ayuntamiento, dándose lectura al informe emitido por Intervención quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa vigente, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el art. 34 de la Norma Foral 4/1991 de 26 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales, y art. 40 del Decreto Foral 96/1992, de 1 diciembre, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Finalizado el debate, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Hacienda y Gobierno, y sometido el asunto a votación, con los votos favorables del Sr. alcalde y de los concejales Sres. Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina y Pereira ( 7 votos) y los votos en contra de los concejales Sres. Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta y Toral , ( 5 votos) se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos nº 02/2006

**Lehenengo**.- KREDITU GEHIGARRIEN bidez, Udal honen aurtengo ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion 2006/03 kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera

mediante CREDITOS ADICIONALES que afecta al Presupuesto de este Ayuntamiento del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos

AUMENTOS DE CREDITOS
KREDITU GEHIKUNTZAK

| Capítulos<br>Atalak | Denominación<br>Izendapena | Aumentos<br>Gehikuntzak |
|---|---|---|
| III<br>IV | Bienes corrientes y de servicios<br>Transferencias corrientes | 79.832,02<br>11.498,64 |
| | TOTAL AUMENTOS /GUZTIRA | 91.330,66 |

RECURSOS QUE LOS FINANCIAN
FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Capítulos<br>Atalak | Denominación<br>Izendapena | Importe<br>Zenbatekoa |
|---|---|---|
| VIIII | Remanente de tesoreria | 91.330,66 |
| | TOTAL /GUZTIRA | 91.330,64 |

**Bigarren.-** Hamabost eguneko epean jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioak egin ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

**Segundo.-** Someter el presente acuerdo a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto General.

**10.- 2007. urterako Aurrekontu Orokorra. Plantila Organikoa. Lanpostuen zerrenda**.

**10.- Presupuesto general 2007. Plantilla Orgánica. Relación de puestos de trabajo**.

Alkate jaunak aditzera eman du, ohitura den bezala, eta ekitaldia amaitu aurretik, Kontuetarako Batzorde bereziak 2007. urterako Aurrekontu Orokorraren proiektua aurkezten duela, oraingo honetan 8.052.356,14 euroko zenbatekora igotzen duena, EAJk azken orduan emendakina aurkeztu diolarik.

Esan du gainera aurrekontu honek zenbateko txikiagoa agertzen duela, beti ere edateko uraren eta saneamenduaren horniduraren gestio integrala esleitu izanaren ondorioz, eta hargatik ez dela agertzen ez gasturik ez diru sarrerarik lehen agertzen ziren kontzeptu batzuengatik, urteko kanon aldakorra salbu.

Esan du gainera aurrekontu honek aurreko urteetako koherentzia berari eusten diola; gastu finkoak mantentzen dira, inbertsio mailari eusteko ahalegina egin da, langileen gastuek behera egin dute, izan ere 2006an lanpostuen balorazioa aurreikusi behar izan zen, eta baita Azurmendi jaunaren erretiro aurreratuaren saria; batzorde batzuetan gora egin da, adibidez Gizarte Zerbitzuetan eta Kultura eta Jaietan. Era berean, adierazi du akats bat dagoela garapen bidean dauden herriekiko lankidetzaren diru partidan, ez baita %1 aurreikusi, %0,9 baizik; dena den, aurkezten den lehenengo kreditu aldaketan konponduko da akats hori.

Jarraian, alkate jaunak aurrekontu honetan aurreikusi diren inbertsioen berri eman du:

- Hirigune historikoa: 120.000 €

El Sr. Alcalde manifiesta que como, es tradición, se presenta antes de finalizar el ejercicio desde la comisión Especial de Cuentas el proyecto de Presupuesto General municipal para el 2007, que asciende a una cantidad de 8.052.356,14 € , propuesta a la que el PNV ha presentada a última hora una enmienda.

Añade que este presupuesto contempla una cantidad menor como consecuencia de la adjudicación de la gestión integral del abastecimiento de agua potable y del saneamiento, que supone que no aparezca ni gasto ni ingreso por algunos conceptos que anteriormente aparecían, con la salvedad del canon anual variable.

Sigue diciendo que este presupuesto sigue manteniendo la misma coherencia que en años anteriores, se siguen manteniendo los gastos fijos, se intenta mantener el nivel de inversiones, disminuyen los gastos de personal debido a que en el 2006 se tuvo que contemplar la valoración de puestos y la prima por jubilación anticipada del Sr.Azurmendi, y se aumentan algunas Comisiones, tales como Servicios Sociales y Cultura y Festejos. Asimismo indica la existencia de un error en la partida destinada a la cooperación con los países en vías de desarrollo, ya que no se contempla el 1% sino el 0,9%, no obstante este error será subsanado en la primera modificación de créditos que se presente.

El Sr. Alcalde seguidamente da cuenta de las inversiones que se contemplan en el presente presupuesto:

- Casco histórico: 120.000 €

- Belaustegi plaza: 150.000 €
- Eguneko Zentroa, catering: 12.000
- Industrialdea: akzio erosketaren azken epea: 32.200 €
- Iparragirre Museoa: 600.000 €
- Santa Barbara, jatetxea hobetzea: 118.000 €
- Udal igerilekua hobetzea: 12.000 €
- Trafikoa eta peatonalizazioari dagozkion jarduketak: 18.000 €
- Bidegorriak: 12.000 €
- Nekazaritza: 24.000 €
- Labeaga espaloiak: 30.000 €
- Perco jarduketak: 18.000 €
- Urretxuko argazkien liburua: 12.000 €
- Udaletxeko beheko solairua: 12.000 €
- Fluxu erreduktoreak: 6.000 €
- Udaletxeko hegala: 18.000 €
- Fatxaden programa: 30.000 €
- Altamira inguruko berrikuntza: 480.000 €
- Industrietako ingurugiroari buruzko proiektua: 12.000 €
- Euskal Herriko Itzulia: 40.000 €
- Oztopo arkitektonikoak kentzea: 24.000 €
- Mahaiak erostea – pilotalekuko zorua: 18.000 €
- Areizaga kalea eta Zubimusu plaza egokitzea: 300.000 €
- Areizaga plaza: 120.000 €
- Urretxuko diska: 12.000 €
- Gainzuriko obrak: 600.000 €
- Informatika ekipoak: 18.000 €
- Kultur ekipamendua: 6.000 €
- Elizaldeko aparkalekua: 12.000 €
- Semaforoak: 12.000 €
- Mugitegiko eskailera: 12.000 €
- Kanposantua: 12.000 €
- Industriagune berria: 6.000 €

Jarraian, Kontuen Batzorde Bereziko

- Plaza Belaustegi. 150.000 €
- Centro día catering: 12.000 €
- Industrialdea: ultimo plazo de la compra de acciones: 32.200 €
- Museo Iparragirre: 600.000 €
- Santa Bárbara, mejora restaurante: 118.000 €
- Mejora piscinas municipales: 12.000 €
- Actuaciones derivadas de trafico y peatonalización: 18.000 €
- Bidegorris: 12.000 €
- Rural: 24.000 €
- Aceras Labeaga: 30.000 €
- Acciones Perco: 18.000 €
- Libro fotos Urretxu: 12.000 €
- Reforma ayuntamiento planta baja: 12.000 €
- Reductores flujo: 6.000 €
- Alero ayuntamiento: 18.000 €
- Programa fachadas: 30.000 €
- Remodelación zona Altamira: 480.000 €
- Proyecto medioambiente industrias: 12.000 €
- Vuelta Pais Vasco: 40.000 €
- Supresión barreras arquitectónicas: 24.000 €
- Compra mesas –suelo frontón: 18.000 €
- Rehabilitación c/ Areizaga y plaza Zubimusu: 300.000 €
- Plaza Areizaga: 120.000 €
- Disco Urretxu: 12.000 €
- Obras Gainzuri: 600.000 €
- Equipos informática: 18.000 €
- Equipamiento cultural: 6.000 €
- Aparcamiento Elizalde: 12.000 €
- Semaforos: 12.000 €
- Escalera Mugitegi: 12.000 €
- Cementerio: 12.000 €
- Nueva zona industrial: 6.000 €

Seguidamente da la palabra al

buru Tellez jaunari eman dio hitza, eta honek ere alkate jaunak aipatu duen beherapena azpimarratu du; gastu eta sarrerei buruzko azalpena eman du ondoren, eta aditzera eman du Gizarte Ekimeneko batzordea dela aurrekontuan diru kopururik haundiena duena.

Ondoren, batzorde informatiboetako lehendakarien jardunari eman zaio hasiera:

- **Hezkuntza eta Gazteria Batzordea**: Zufiaurre jaunak aipatu duenez Hezkuntzan zenbateko aipagarrienak ikastetxeetako eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko erabiltzen direnak dira; eta aurten gainera, Gainzuriko jolastokia estaltzeko inbertsioari dagokion kopurua. Gazteriari dagokionez esan du aurrekontua hainbat ekintzatarako eta Gaztelekuko aportaziorako erabiltzen dela.

- **Kirol Batzordea:** Zufiaurre jaunak azaldu du batzorde honen aurrekontua hainbat jarduerata-rako, dirulaguntza, eskola kirola, uda kanpaina, Goierriko Itzulirako erabiltzen dela, eta aurten, Euskal Herriko Itzulirako ere bai.

- **Gizarte Ekimena eta Osasun Batzordea:**
  Agirre jaunak aditzera eman du batzorde honetan izan dela benetan igoerarik haundiena, hain zuzen ere Eguneko Zentroan dauden eskabide garrantzitsu batzuk, egoitzetako autonomoen gastuak eta gizarte laguntzak babesteko. Osasunaren atalari dagokionez, esan du diru kopuruak benetan dauden gastuen arabera

Sr.Téllez, presidente de la Comisión Especial de Cuentas, quien recalca el detrimento señalado por el Sr.Alcalde, pasando después a hacer una relación de los diferentes gastos e ingresos, indicando que la Comisión que más consignación presupuestaria tiene es la de Acción Social.

Seguidamente se inicia el turno de intervención de los presidentes de las distintas Comisiones informativas:

- **Comisión de Educación y Juventud:** El Sr.Zufiaurre indica que en Educación las cantidades más significativas son las destinadas a subvencionar las actividades extraescolares de los distintos centros, y este año la cantidad destinada como inversión a la cubrición del patio de Gainzuri. Respecto a Juventud señala que el presupuesto se destina a distintas actividades y a la aportación al Gazteleku.

- **Comisión Deportes**; el Sr.Zufiaurre señala que el presupuesto de esta comisión se destina a distintas actividades, subvenciones, programa de deporte escolar, “uda kanpaina”, vuelta al Goierri, y este año como novedad a la Vuelta al País Vasco.

- **Comisión Acción Social y Sanidad**: la Sra. Agirre señala que efectivamente es la Comisión que más se incrementa para cubrir demandas importantes existentes en el Centro de Día, gastos de autónomos en residencias y ayudas sociales. En cuanto al capitulo de sanidad, indica que se han ajustado las cantidades en función de los gastos realmente

egokitu direla.

- **Nekazaritza Batzordea:** Errazu jaunak adierazi du ez dagoela berri haundirik aurreko ekitaldiarekiko; aipatu duenez, egin nahi diren lanak orain arte egin izan direnen bidetik doaz.
- **Enplegua, Industria eta Merkataritza:** Perez jaunak adierazi du ez duela parte hartu aurrekontua prestatzeko lanetan; horren aurkako botoa emango duela, eta ez duela ezer esango.

**Euskara Batzordea:** Otermin jaunak aditzera eman du batzorde honen aurrekontua euskara biziberritzeko planaren barru jasotako jardueretan erabiliko dela; hala nola, dendariei zuzendutako kanpainak, "Mntza laguna", bertso eskolarako ekarpena, Hitza eta Zintzo-Mintzo elkartea, eta baita udalekuetarako begirale ikastarorako, eta euskaltegiko diru ekarpenetarako; oraingo honetan igo egin du ekarpen horrek, jarduera bikoiztu egin delako.

- **Kultura eta Jaietako Batzordea**: Otermin jaunaren esanetan, batzorde honek gora egin du aurrekontuan, eskatzen diren premiei erantzun ahal izateko.

Batzorde buruen hitz jardunak amaituta, eztabaidari eman zaio hasiera; Zabaleta andreak hitza eskatu eta aditzera eman du nola PSE-EE taldeak ez duen parte hartu aurrekontuaren prestaketan, "alkatearen sozio berriak" egingo zuela, eta hargatik kontrako botoa emango dute.

existentes,

- **Comisión Rural:** El Sr. Errazu manifiesta no tener muchas novedades respecto a ejercicio anteriores, indicando que los trabajos que se pretenden realizar van en la línea de los que se vienen haciendo hasta ahora.
- **Comisión de Empleo, Industria y Comercio:** el Sr.Pérez indica que no ha participado en la elaboración del presupuesto, va a votar en contra del mismo por lo que no interviene.

- **Comisión Euskera:** el Sr.Otermin indica que el presupuesto de esa comisión se destina a a actividades recogidas en el plan de revitalización del uso del euskera, tales como las campañas dirigidas a los comerciantes, "mintza laguna"; a la aportación a la escuela de bersos, a Hitza, y a Zintzo-Mintzo; y al curso de monitores para los "udalekus" ; así como a la aportación al euskaltegi, que en esta ocasión se ha incrementado porque se ha duplicado su actividad.

- **Comisión de Cultura y Festejos:** el Sr. Otermin indica que esta comisión se ha incrementado para cubrir las necesidades que demanda.

Finalizadas las intervenciones de los presidentes de Comisión, se inicia el turno de debate, pidiendo la palabra la Sra. Zabaleta, quien dice que como el PSE-EE no ha participado en la elaboración del presupuesto, lo habrá hecho el "nuevo socio del Alcalde" van a votar en contra del mismo.

Molina jaunak eskatu du hitza eta aipatu duenez, baiezko botoa emango du, nahiz eta ikusi duen ez dela aurreikusi Lilibasoko haur-parkea. Zabaleta andreak agin dion aipamenari dagokioez, esan du bera ez dela alkatearen sozioa, ez berria, ez zaharra.

Pide la palabra el Sr.Molina quien señala que va a votar a favor de este presupuesto, aunque ha comprobado que no se ha contemplado el parque infantil de Lilibaso. Respecto a la alusión realizada por la Sra. Zabaleta le dice que él no es ni nuevo ni viejo socio del Sr. Alcalde.

Agirre andreak eskatu du hitza, eta aditzera eman du abenduaren 11n, aurrekontuaren zirriborroa koadratu gabe aurkeztu zen lehen bilera batean, ekarpenak abenduaren 21erako aurkeztekotan geratu zirela. EAJk abenduaren 21ean aurkeztu ditu proposamenak, eta bertan eskatu dute babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurra erosteko partida bat sartzea aurrekontuan, eta horretarako euren ustez geldi samarrik dauden gai batzuetarako partidetatik murriztea; esate baterako, Iparragirreren museoa; era berean, 2.000.000 euroko kreditu bat eskatzea proposatu dute. Gainera, pribatutasun gehiago eskatu dute gizarte zerbitzuetako bulegoetan.

Pide la palabra la Sra. Agirre quien indica que el 11 de diciembre en una primera reunión en la que se presentó un borrador presupuestario descuadrado se quedó que las posibles aportaciones se presentaran para el día 21 de diciembre. El PNV ha presentado propuestas el citado día 21 solicitando se incluya en el presupuesto una partida para compra de suelo destinado a VPO, detrayendo para éllo partidas que contemplan asuntos que entienden están un poco parados, tales como el museo Iparragirre, y planteando también recurrir a un crédito por importe de 2.000.000 €. Asimismo solicitan mayor privacidad en las oficinas de servicios sociales.

Urrestarazu jaunak hitza eskatu eta aditzera eman du bere ustez oso adierazgarria dela lur zorua erosteko diru partidarik ez egotea, eta ea zergatik galdetzen du.

El Sr.Urrestarazu pide la palabra y manifiesta que considera muy representativo que no exista partida para compra de suelo, preguntando por qué.

Perez jaunak hitza eskatu eta adierazi du harrituta dagoela esaten denean EAJk aurkeztutako proposamenak berandu iritsi direla, osoko bilkura honetarako deialdia berari asteartean, 18:30ean, iritsi zaiola ikusita. Osoko bilkuretako deialdiei buruzko azalpena eman zaio.

El Sr. Pérez pide la palabra y dice que le sorprende que se diga que las propuestas al Presupuesto presentadas por el PNV llegan tarde, cuando a él le llega la convocatoria de este Pleno el martes a las 18:30 horas. Se le explica como son las convocatorias de sesión plenaria.

Alkate jaunak aditzera eman du, Urrestarazu jaunaren interbentzioari

El Sr. Alcalde manifiesta, respecto a la intervención del Sr. Urrestarazu, que

dagokionez, postibotzat ikusten duela diru partida ireki bat sartzea babes ofizialeko etxebizitzetarako lurra erosteko, Altamirako berrikuntzarako aurreikusia dagoen zenbatekotik murriztuz kopuru hori; baina ez dagoela prest kreditu-eragiketa batera jotzeko, EAJk proposatzen duen bezala, izan ere bere ustez egoera ekonomiko saneatua utzi behar zaio korporazio berriari; beraz, 1.000 euroko partida aurreikustea proposatzen du, eta eztabaida irekita utzi hurrengo udalbatzari. Bestalde, uste du dauden bezala utzi behar direla Iparragirre museoari dagozkion partidak, lokala erosteko elkarrizketak oso aurreratuta daudelako, eta bere iritziz laster egin ahal izango da erosketa; Zubimusu plazari dagokiona ere dagoen bezala uztea, bere ustez laster eraiki behar den obra delako, Areizaga plazako konponketa lanarekin koordinatu beharrekoa.

Molina jaunak esandakoari dagokionez, aipatu du Basagastiko haur-parkea ez dela aurreikusi beste diru atal bat bezala, baina bere iritziz gastu hori sartuta dago bide publikoen diru partidaren barru.

Jarraian, Agirre andreari galdetu dio ea bere taldea, EAJ, ados egon litekeen aurrekontuarekin, baldin eta beraiek egindako proposamena sartzen bada; Agirre andreak ezezkoa erantzun dio, konpromiso serioa nahi dutelako.

Plantila organikoari eta lanpostuen zerrendari dagokionez, dokumentu horiek ere onartu egin behar direnez, aditzera eman du ez dagoela berrikuntza haundirik, Azurmendi administrari jaunaren erretiroaren

ve positivo la inclusión de una partida de carácter abierto para compra de suelo destinado a VPO con una consignación de 1.000 € detrayendo esta cantidad de la destinada a la remodelación de la zona de Altamira, pero que no estaría dispuesto a recurrir a una operación de crédito como la que plantea el PNV, ya que cree que se debe dejar a la nueva corporación una situación económica saneada, por lo que propone contemplar una partida con 1.000 € y dejar el debate abierto para la siguiente corporación. También entiende necesario mantener como están las partidas correspondientes al museo Iparragirre porque las conversaciones para la compra del local están muy avanzadas con lo que entiende se podrá proceder a la compra en breve, y la correspondiente a la plaza Zubimusu porque es una obra que entiende necesario acometer en breve dado que se tendrá que coordinar con la reparación de la plaza Areizaga.

En cuanto a lo señalado por el Sr.Molina indica que efectivamente no se ha incluido el parque infantil de Basagasti como partida aparte, pero que entiende que este gasto está incluido dentro de la partida de vías públicas.

Seguidamente pregunta a la Sra. Agirre si su grupo, PNV, podría estar de acuerdo con el presupuesto una vez introducida la propuesta realizada, a lo cual la Sra. Agirre manifiesta su negativa porque quieren un compromiso serio.

Respecto a la plantilla orgánica y a la relación de puestos de trabajo,

ondorioz, eta erreleboan dauden bi langileen ondorioz sortutako aldi bateko langileenak baino.

Hori guztia ikusirik, eta eztabaidarako txanda amaituta, alkate jaunak adierazi du **EAJk aurkeztutako emendakina** eramango dela botoetara lehenengo, baztertuta geratu den emendakina, botazioaren emaitza hauxe izan baita: kontrako botoak 7, alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira zinegotziek emandakoak; aldeko botoak 3, Agirre, Errazu eta Perez zinegotziek emandakoak; eta bi abstentzio, Zabaleta eta Toral zinegotzienak.

Ondoren, eta babes ofizialeko etxebizitzetarako lur zorua erostearen inguruan alkate jaunak egin duen proposamena jasota, aurrekontua eraman da botoetara, eta horrekin batera plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda. Alkate jaunak eta Zufiaurre, Otermin, Tellez, Aztiria, Molina eta Pereira (7 boto) baiezko botoa eman da, eta Agirre, Errazu, Perez, Zabaleta eta Toral zinegotziek (5 boto) aurkakoa, hona hemen erabakia:

**Lehenengo.-** Lehen onespena ematea 2007ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari, atalkako laburpena ondorengo hau izanik:

## GASTUAK

| Kapitulua Izendapena | Euroak |
|---|---|
| I Langileak | 1.452.165,40 |
| II Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 2.581.311,35 |
| III Finantza gastuak | |
| IV Transferentzia arruntak | 1.094.704,08 |

documentos que se tienen que someter también a aprobación, indica que no tienen mayores novedades que los interinajes surgidos tras la jubilación del administrativo sr. Azurmendi y de los dos operarios que se encuentran en relevo.

A la vista de lo anterior, y finalizado el turno de debate, el Sr.Alcalde indica que se va a someter a votación en primer lugar la **enmienda presentada por el PNV,** la cual es desestimada por resultar la siguiente votación: 7 votos en contra , los emitidos por el Sr.Alcalde y los concejales sres. Zufiaurre, Otermin, Téllez, Aztiria, Molina y Pereira , 3 votos a favor , los de los ediles sr@s. Agirre, Errazu y Pérez; y dos abstenciones , la de los corporativos, sr@s Zabaleta y Toral.

Seguidamente se somete a votación el presupuesto una vez recogida el dictamen-propuesta efectuado por el Sr. Alcalde relativo a la compra de suelo para VPO, así como la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo. Con los votos a favor del Sr. Alcalde y los concejales Sr@s. Zufiaurre, Otermin, Téllez, Aztiria, Molina y Pereira ( 7 votos), y los votos en contra de los ediles Sr@s Agirre, Errazu, Pérez, Zabaleta y Toral ( 5 votos) , se acuerda:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Presupuesto General único para el ejercicio 2007, cuyo resumen por capítulos es el siguiente:

## ESTADO DE GASTOS

| Capítulo Denominación | Euros |
|---|---|
| I. Personal | 1.452.165,40 |
| II Gastos de bienes corrientes | |

VI Inbertsioak 2.882.000,00
VII Kapital transferentzia 9.961,80
VIII Finantza aktiboak ………. 32.212,50
IX Finantza Pasiboak
**-Guztira……. 8.052.355,13**

## SARRERAK

| Kapitulua | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| I | Zerga zuzenak | 1.119.453,83 |
| II | Zeharkako zergak | 300.000,00 |
| III | Tasa eta bestelako sarr. | 666.460,29 |
| IV | Transferentzia arruntak | 4.385.169,21 |
| V | Ondrezko interesak | 76.726,77 |
| VI | Inbertsio errealak inoerganatzea | |
| VII | Kapital transferentzia | 1.504.546,04 |
| **Guztira……………………** | | **8.052.356,14** |

**Bigarren.-** Izaera berberarekin, Aurrekontuaren Exekuzioko Udal Araua onartzea.

**Hirugarren.-** Onartutako aurrekontua jende aurrean azaldu 15 eguneko epean, udaletxeko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak jarriz.
Epe hori igaro eta erreklamaziorik egiten ez bada, onartutzat hartuko da behin-betiko, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarren.-** 2007rako plantila organikoa onartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratuz aurrekontuaren laburpenarekin batera.

y servicios 2.581.311,35
IV Transferencias corrientes .1.094.704,08
VI Inversion reales 2.882.000,00
VIITransferencias capital 9.961,80
VIII Activos financieros ………. 32.212,50

**total Capítulos.... ….. 8.052.355,13**

**ESTADO DE INGRESOS**

| Capítulo | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| I. | Impuestos directos | 1.119.453,83 |
| II | Impuestos indirectos | 300.000,00 |
| III | Tasas y otros ingres. | 666.460,29 |
| IV | Transfere. corrientes … | .4.385.169,21 |
| V | Ingresos patrimoniales | 76.726,77 |
| VII | Transferencias de capital | 1.504.546,04 |
| **Total cap. s.........** | | **8.052.356,14** |

**Segundo.-** Aprobar con el mismo carácter la Norma municipal de Ejecución Presupuestaria.

**Tercero.-** Exponer al público el Presupuesto aprobado por un plazo de 15 días mediante anuncio en el Tablón de anuncios de la Corporación y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.
Transcurrido dicho plazo sin reclamaciones dicho Presupuesto se entenderá aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto.-** Aprobar la plantilla orgánica para 2007, publicándola íntegramente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con el resumen del presupuesto.

…………………………………………………………………………………………

# PLANTILLA ORGANICA 2006

| Num. Plazas | Denominación | Grupo L.6/89 | Situación | Observaciones |
|---|---|---|---|---|
| **PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA** | | | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FUNCIONARIOS DE HABILITACION NACIONAL** | | | | |
| | ** Subescala Secretaría* | | | |
| 1 | Secretario | A | V | Interino |
| | ** Subescala Intervención* | | | |
| 1 | Interventor | A | V | Accidental |
| **ESCALA ADMINISTRACION GENERAL** | | | | |
| | ** Subescala administrativa* | | | |
| 3 | Administrativo A.G. | C | 3 P | 1 nombramiento interventor accidental |
| | ** Subescala auxiliar* | | | |
| 1 | Aux. Administrativo A.G. | D | V | Interino |
| **ESCALA ADMINISTRACION ESPECIAL** | | | | |
| | ** Subescala Servicios Especiales* | | | |
| | Clase: Policía Municipal | | | |
| 1 | Jefe | C | P | Excedencia |
| 5 | Agente | D | 5P | 1 excedencia<br>1 com.servicios |

| **Num. Puestos** | **Denominación** | **Categoria profesional** | **Grupo** | **Situación** | **Observac.** |
|---|---|---|---|---|---|
| **PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL** | | | | | |
| 1 | Técnico Personal, empleo, industria y comercio | 2 | B | F | Excedencia |
| 2 | Asistente Social | 2 | B | 2F | |
| 1 | Aparejador | 2 | B | F | |
| 1 | Coordinador de cultura | 2 | C | F | |
| 1 | Traductor euskera | 2 | C | F | |
| 1 | Archivero | 2 | C | F | Jornada 75% |
| 1 | Auxiliar bibliteca | 2 | C | F | Jornada 50% excedencia |
| 1 | Auxiliar cultura | 2 | C | F | |
| 1 | Auxiliar administrativo | 7 | D | F | |
| 1 | Administrativo urbanismo | 2 | C | F | |
| 1 | Encargado de obras y servicios | 4 | C | F | |
| 1 | Operario servicios múltiples | 8 | D | F | Contrato relevo |
| 1 | Chófer y varios | 10 | E | F | |
| 1 | Operario servicios múltiples | 10 | E | V | Interino |
| 1 | Técnico deportes | 2 | B | F | |
| 1 | Responsable-conserje polideportivo | 4 | D | F | |
| 1 | Limpieza y atención polideportivo | 10 | E | F | |
| 1 | Conserje colegio público | 6 | E | F | |

**Bosgarren.-** 2007rako lanpostuen zerrenda onartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratuz aurrekontuaren laburpenarekin batera.

**Quinto** Aprobar la relación de puestos de trabajo para 2007, publicándola íntegramente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con el resumen del presupuesto.

URRETXUKO UDALA

URRETXU (Gipuzkoa)

## RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO/2007
## FUNCIONARIOS DE CARRERA

| Denominación | Forma provisión | Area Dependencia | Escala | Subescala | Grupo | C.D. D.207/90 | CE | Dedicac | Titulación | Situación | P.L. Preceptividad |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Secretario | Concurso | Secretaria. | H.N. | Secretario | A | 29 | 13.617,00 € | 100 | Licenciado Derecho/ Políticas/sociología | Interino | 4 (31-12-1994) |
| Interventor | Concurso | Intervención | H.N. | Intervención | A | 26 | 13.875,16 € | 100 | Licenciado Derecho/ Económicas/ Empresariales | Accidental | 4 (31-01-1991) |
| Administrativo Tesorero | Concurso oposición | Intervención | A.G. | Administrativo | C | 20 | 14.716,92 € | 100 | FPII o equivalente | Propiedad Comisi.Serv (2) | 3 (31-12-1994) |
| Administrativo | Concurso oposición | Secretaría | A.G. | Administrativo | C | 16 | 10.881,37 € | 100 | FP II o equivalente | Vacante (1) | 3 (31-12-1994) |
| Administrativo | Concurso oposición | Secretaría | A.G. | Administrativo | C | 16 | 10.881,37 € | 100 | FP II o equivalente | Propiedad | 3 (31-12-1993) |
| Auxiliar Empleo | Concurso-Oposición | Empleo, personal | A.G. | Auxiliar | D | 16 | 12.421,81 € | 100 | Diplomatura | Interino | |
| Auxiliar Administrativo | Concurso oposición | Intervención | A.G. | Auxiliar | D | 16 | 12.421,81 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Interino | 2 |
| Jefe Policia Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | C | 17 | 11.730,45 € | 100 | FP II o equivalente | Excedencia (1) | 3 (31-12-1994) |
| Policía Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Excedencia (1) | 2 (08-02-1993) |
| Policía Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 (31-12-1991) |
| Policía Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Comisión de servicios (1) | 2 (14-05-01 ) |
| Policía Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 ( 14-05.01 ) |
| Policía Municipal | Concurso oposición | Policía Municipal | A.E. | Servicios Especiales | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | Propiedad | 2 |

(1) Cubierto interinamente. (2) Comisión Servicios

URRETXUKO
UDALA

URRETXU (Gipuzkoa)

# RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO/2007
## PERSONAL LABORAL

| Denominación | Forma provisión | Area Dependencia | Grupo | CD | CE | Dedicación | Titulación | P.L. Preceptividad | Situación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Técnico Empleo Personal Industria y comercio | Concurso oposición | Empleo/personal Industria y comercio | B | 20 | 11.831,81 € | 100 | Diplomatura | 4 (31-12-1994) | Excedencia |
| Asistente Social | Concurso oposición | Acción Social y Sanidad | B | 21 | 12.723,92 € | 100 | Diplomado Trabajo Social | 3 (31-12-1994) | F |
| Asistente Social | Concurso oposición | Acción Social y Sanidad | B | 19 | 10.851,10 € | 100 | Diplomado Trabajo Social | 3 (31-12-2002) | F |
| Aparejador | Concurso oposición | Urbanismo, Obras y Servicios | B | 23 | 14.330,40 € | 100 | Aparejador o Arquitecto Técnico | 4 (31-12-1994) | F |
| Administrativo Urbanismo, Obras y servicios | Concurso-oposición | Urbanismo, Obras y Servicios | C | 16 | 10.881,37 € | 100 | FP II Administrativo, Bachiller superior, o equivalente | 3 (31-12-2002) | F |
| Coordinador de Cultura | Concurso oposición | Cultura | C | 19 | 13.736,26 € | 100 | FP II o equivalente | 3 (31-12-1993) | F |
| Traductor | Concurso oposición | Secretaría/ Euskera | C | 17 | 11.730,45 € | 100 | FP II o equivalente/ Título D euskera | 4 | F |
| Archivero | Concurso oposición | Secretaría | C | 17 | 8.797,84 € | 75 | Bachiller superior o equivalente | 3 (31-12-1993) | F |
| Auxiliar de Biblioteca | Concurso oposición | Cultura | C | 16 | 5.440,68 € | 50 | FP II o equivalente | 3 (01-03-1999 | F |
| Auxiliar. Cultura | Concurso oposición | Cultura | C | 16 | 10.881,37 € | 100 | Bachiller superior/ FPII o equivalente | 3 (31-12-1991) | F |
| Auxiliar Admvo | Concurso oposición | Alcaldía/ Secretaría | D | 16 | 12.421,81 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | 2 | F |
| Encargado Brigada de obras | Concurso oposición | Brigada de obras | C | 17 | 11.730,45 € | C..E.T.D.E.. | FPII o equivalente | 2 (31-12-1994) | F |
| Operario servicios multiples | Concurso oposición | Brigada de obras | D | 12 | 9.107,56 € | 100 | Graduado escolar/ FPI o equivalente | 1 | V (Interinidad) |
| Operario servicios múltiples | Concurso oposición | Brigada de obras | D | 12 | 9.107,56 € | 100 | Certificado de Escolaridad | 1 | V ( Interinidad) |
| Chofer y varios | Concurso oposición | Brigada obras | D | 12 | 9.107,56 € | 100 | Certificado de escolaridad | 1 | F |
| Técnico deportivo | Concurso oposición | Deportes | B | 18 | 9.870,04 € | 100 | Diplomado | 3 (31-12-1994) | F |
| Responsable/ Conserje Polideportivo | Concurso oposición | Deportes | D | 14 | 10.724,33 € | 100 | Graduado escolar FPI o equivalente | 2 (31-12-1994) | F |
| Limpieza y atención Polideportivo | Concurso oposición | Deportes | E | 11 | 8.941,28 € | 100 | Certificado escolaridad | 2 | F |
| Conserje C.P: Gainzuri | Concurso oposición | Educación | E | 12 | 9.708,88 € | 100 | Certificado escolaridad | 2 | F |

**11.- Alkatetzari zuzendutako galderak**

**1.- PSE-EE taldeko zinegotziek egindako galdera: Zein egoeratan dago Elizalde inguruko hormaren gaia, Mendiolaren etxearena.**
Alkate jaunak azaldu du, Hirigintza Batzordean aipatu zuen bezala, bere jarrera eta gehiengoaren jarrera jatorrizko egoerara ekartzea dela, proiektuan jasotakoaren arabera. Esan du gainera idatziz eskatu dela hori eta denbora ere igaro dela, baina bere asmoa adostasun bidez botatzea dela; hala gertatzen ez bada, exekuzio subsidiarioa egin beharko dela.

Perez jaunak jasota utzi nahi du EAJk legezkotasun txosten bat eskatu zuela; alkate jaunak aipatu dio PSE-EE taldearen galdera alkate jaunari egin zaiola bakar-bakarrik, eta erantzuna eman duela.

**2.- Molina jaunak egindako galdera: Zein egoeratan dago gaur egun Sarralde enpresa eta bertako langileak.**
Alkate jaunak jakitera eman du Sarralde enpresa bi lehiaketa prozeduratan sartuta dagoela, gerenteak aurkeztu zituen baina bete ez diren plan batzuekin. Joan zen uztailean, gerentzia berria tarteko, bazirudien egoera hobetze bidean zegoela, baina ez da horrela izan, eta uste da gainera iruzurrak izan direla gerente desberdinek egindako gestioak. Jarraian esan du dirudienez enpresa bat galduko dela, baina jakinda lehiakortasun aldetik kodenatuta zegoela, ahaztu gabe langileak bertako bazkide

**11.- Preguntas dirigidas a Alcaldía**

**1.- Pregunta formulada por los concejales del PSE-EE: En que situación se encuentra el tema del muro de la zona Elizalde, de la casa de Mendiola**.
El Sr. Alcalde indica que como ya se comentó en Comisión de Urbanismo su postura y la postura mayoritaria es la de que se vuelva al estado original contemplado en el proyecto. También dice que esto se ha solicitado por escrito y que ha transcurrido un plazo, pero que su intención es que se llegue consensuadamente al derribo, pero que de lo contrario se tendrá que proceder a la ejecución subsidiaria.
El Sr. Pérez quiere hacer constar que el PNV solicitó un informe de legalidad, a lo que el Sr. Alcalde le indica que la pregunta que formula el PSE-EE lo es exclusivamente al Sr, Alcalde que ya la ha respondido.

**2.- Pregunta formulada por el concejal Sr.Molina: Cuál es la situación en la que se halla actualmente la empresa Sarralde y sus trabajadores.**
El Sr. Alcalde informa que Sarralde está incursa en dos procedimientos concursales previos, y con unos planes que fueron presentados por el gerente que no se han cumplido. El pasado julio parecía que la situación con la nueva gerencia iba a mejorar, no siendo así, entendiéndose además como engaños las gestiones de los diferentes gerentes. Sigue diciendo que al parecer se va a perder una empresa pero sabiendo que en

direla.

Eta beste gairik izan gabe, Alkate-Udalburu jaunak, aurretik urte berria zorionduz, amaiera eman dio batzarrari, akta honen hasieran agertzen den eguneko hamarrak direlarik, eta nik guzti horren fede ematen dut.

cuanto a competitividad estaba condenada, sin olvidar que los trabajadores son socios de la misma.

Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr.Alcalde-Presidente, previa felicitación por el nuevo año, da por finalizada la presente sesión, siendo las veintidós horas del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe